ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2009ko otsailaren 2a > Astelehena > VII. urtea > 219. zenbakia > Euro 1
www.goiena.net



"Hiriak desberdindu eta bide batez ezagutzaren gizartera egokitu beharko ditugu"

**Alfonso Vegara**
Arkitektoa > 08

**G2a** **Benito Lertxundi, malenkonia, bidaia-lagun** > 29

**ARRASATE**
**Genero indarkeriaren kontrako film labur lehiaketa** > 05

**EKONOMIA**
**Langileek mesfidantzaz hartu dute Cesagako zuzendarien asmoa** > 06

**KULTURA**
**Vibrators eta UK Subs taldeen kontzertua 3.60 aretoan** > 30

**KULTURA** > IRAKURKETA

## Irakurtzen ohitzeko egitasmoa

'Bularretik mintzora' izeneko kanpaina aitzindaria abiarazi dute Oñatin > 03

**KIROLA** > FUTBOLA

## Bergararren arteko futbol derbian binako berdinketa

Bergararren arteko futbol derbia binako berdinketarekin amaitu zen zapatuan Agorrosinen. Ikusmina piztu zuen lehiak; ondorioz, jende ugari joan zen lehia ikustera.

Bergara 2-0 aurreratu zen markagailuan; baina, BTLS lehia berdintzeko gauza izan zen. Azkenean, puntu banaketa derbian. > 23

**ELGETA** > 'DANON ARTIAN'

## Herritarren iritzia jaso du Udalak

Legealdirako plana egiteko, herritarrei galdetu diete > 11



**UDAL ORDEZKARIAK** Ibarreko herri gehienetako alkateek eta hainbat alkate ohi eta zinegotzik esku hartu zuten kale agerraldian. JOSETXO ARANTZABAL

**POLITIKA** > 'GEUREA IKURRINA'

# Ikurrinaren alde, bat egin zuten Bergaran

**ALKATE OHIAK** Jose Luis Elkoro eta Jose Luis Altuna alkate ohiek igo zuten ikurrina udaletxeko balkoira

**BABES HANDIA** Bai Euskal Herriari ekimenaren helburuak gizarteko eragile askoren babesa jaso du

Ikurrinaren alde zapatuan egin zuten kale agerraldiak eta ekitaldiak debagoiendar asko batu zituen Bergaran. Horrez gain, gizarte eragile askoren babesa jaso zuen. Helburua ekitaldiko antolatzaileen –Bai Euskal Herriari ekimena– esanetan, euskaldunon ikur eta adierazle den ikurrina babestu eta kanpoko indarrek inposatutako ikurrekin bat egiten ez dutela jakitera ematea izan zen. > 04

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 03
**Ekonomia** > 06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Telebista-irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39
**Azkena** > 40

**KIROLA** > ESKUBALOIA

## Ademar Leon nagusi Zubikoan

Asobal mailako lehian, Ademar Leon 27-35 nagusitu zitzaion Arrateri zapatuan Oñatin> 22

**POLITIKA** > HAUTESKUNDEAK

## Gipuzkoako zerrendatan, 22 ordezkari

Hauteskundeetara aurkeztutako Gipuzkoako zerrendatan, 22 debagoiendar > 04

Iritsi dira urtarrileko opariak! Badago zuretzat?

Zoaz 7. orrialdera




ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK
ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK
ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK
ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK
75 dendatik eta 200 produktutik gora.
merkatua.net Debagoieneko denda handiena. Etxetik bertatik eskura.
MERKATUA.net
Debagoieneko denda
ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK
ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK
ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK
ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK
ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK
ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK
ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK
ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK

**LITERATURA** > 'BULARRETIK MINTZORA' EGITASMOA

# Abian da irakurzaletasuna umetatik bultzatzeko kanpaina

**ALTXORRA** Modu egokian erabiliz gero irakurketa altxorra izan daitekeela diote egitasmoaren bultzatzaileek

**HELBURUA** Irakasleengan eta gurasoengan umeei irakurtzeko edo abesteko ohitura bultzatu nahi dute

**LIBURUAK** Ipuinak, kantuak, olerkiak eta jolasak jaso dituzte liburu-disko batean, handik ikasi eta erabiltzeko

**PROZESUA** Kanpaina hasita dago, eta, hainbat herritan proba egin ostean, hiru edo lau urte iraungo du

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > OÑATI

*Bularretik mintzora* kanpaina ipini dute abian Oñatiko Udal Liburutegian. Egitasmo horren helburua da 0 eta 6 urte bitarteko umeengan irakurketa ohiturak sustatzea gurasoekin eta hezitzaileekin. Hau da, etxean, eskolan eta liburutegian giroa sortzea modu naturalean ipuinak kontatzeko, irakurtzeko edo entzuteko.

Umeek jaiotzen direnetik gauza asko behar dituzte garatzeko, eta ekimena abian ipini dutenen esanetan, "behar horiei aurre egiteko inguruko helduek altxor bat daukate: irakurketa. Modu egokian erabiliz gero, umeen adimena, hizkuntza eta emozioak garatzeko eta lotura afektibo sendoak finkatzeko balioko du".

Itziar Zubizarreta irakasle eta narratzaileak parte hartzen dihardu *Bularretik mintzora* egitasmoan. "Mundu guztian irakurketa maila jaisten ari da; hortaz, horrelako egitasmo bat ipini zuten abian Britainia Handian eta gerora beste herrialdeetan. Kanpainak eguneroko lana eta gurasoen, irakasleen eta umeen inplikazioa eskatzen du. Helburua da ohiturak sustatzea eta horrela hizkuntzaren eta hezkuntzaren kalitatea hobetzea eta ingurune afektiboa sortzea literaturaren bidez. Hori onuragarria da umearen osasun mentalerako eta fisikorako", dio Zubizarretak.

Umeen komunikaziorako tresnak zentzumenak, mugimendua, erritmoa eta jolasa dira batez ere bizitzako lehen urteetan, eta, kanpainaren bultzatzaileen esanetan, "tresna horiek aurkitzen ditu irakurketaren eta kontaketen bidez heltzen zaizkion istorio txikietan, errimetan eta jolasetan, eta helduen laguntza eta presentzia ezinbestekoak dira".

**KANPAINA**

Teoria horiek praktikan ipini eta Euskal Herrian berria den egitasmoa abiatu dute, "gure herrian irakurzaletasuna bultzatzeko modu eraginkorrean".

Apirilera bitartean egitasmoa hainbat herritan esperimentatuko da; tartean, Oñatin; hura aukeratu dute geografikoki gune bakoitzean herri bat hartu dutelako eta bertako haur liburutegiak azpiegitura egokiak dituelako.

Ikastaroak eta hitzaldiak dira kanpainaren lehen pausoak eta lehen ikastaroa Itziar Zubizarretaren eskutik jaso dute hainbat hezitzailek. "Ikastaroan landu dugu nola sistematizatu haur literaturaren erabilera eskolan. Ingurune eta irizpideak markatu ditugu eta materialaren eta praktikaren bidez irudikatu dugu datozen urteetan nola gauzatu kanpaina", dio Zubizarretak.

Txiki Txoko haurreskolako hezitzaile Lurdes Arregik hartu du parte ikastaroan: "Proiektu honekin joango gara lantzen adin bakoitzerako aproposak diren olerkiak, lo-kantuak, esku-jolasak, abestiak, ipuinak… Ikastaroak balio izan digu gure lanean konfiantza hartzeko eta ondo dihardugula ikusteko. Askotan instintiboki lo-kantuak abesten ditugu, esku-jokoak egin… eta ikusi dugu bide hau zuzena dela. Bestalde, eskola eta gurasoak harremanetan ipintzea da kontua eta gurasoak ere ohartaraztea ipuinak kontatzearen, jolasen… garrantziaz. Izan ere, oso ona da txiki-txikitatik hastea gurasoak umeei ipuinekiko, kantuekiko eta jolasekiko zaletasuna sortzen".

**MATERIALA**

Kanpainaren barruan materiala ere banatuko dute. Besteak beste, Itziar Zubizarretak koordinatu duen *Bularretik mintzora* liburu-diskoa. "Liburuak jasotzen ditu haur kantuak, jolas txikiak, ipuinak eta sehaska kantuak. Oso modu naturalean abestuak eta esanak daude, CD batean grabatuak. Gure asmoa ez da diskoa zuzenean umeei ipintzea, baizik eta gurasoek eta irakasleek ikasi eta gero umeekin erabiltzea", azaldu digu Zubizarretak.

Horretaz gain, egitasmoa aurkeztuz, gurasoei eta irakasleei gomendio praktikoak emanez eta liburuen zerrendekin esku orriak ere gertatu dituzte. Lurdes Arregik esan digu gurasoei orain eman dietela horren berri, interesgarria iruditu zitzaielako. "Gurasoek horrelako gauzen harira euren kezka azaltzen dute. Esaterako, Gabonetan galdetu ziguten zein opari, ipuin edo jolas ziren egokiak, eta zerrendatxo bat eman genien".

Kanpainan parte hartzen duten eskoletako gela bakoitzean motxila bat izango da. Astero, ume batek liburutegian aukeratutako liburua sartuko du eta gelan astebetez eduki ondoren aldatu egingo du beste batek.

Txikitatik irakurzaletasuna bultzatzeko kanpaina da. Umeei jaten ematen zaien moduan irakurtzen ere eman behar zaiela diote arduradunek. Hortaz, kantuak, ipuinak, olerkiak… emango dizkiete umeei *jateko*.



Oñatiko Haur Liburutegian hainbat ume, ipuin kontaketa adi-adi entzuten.

JOSETXO ARANZABAL

## Ikastaroa eta hitzaldiak

Kanpainaren barruan ikastaro bat egin dute; datozen asteetan beste ikastaro eta hitzaldi batzuk egingo dituzte Oñatiko Haur Liburutegian. Gurasoendako, hezitzaileendako eta interesa dutenendako dira.

**Otsailak 4, 5, 11 eta 12**
18:00 -20:00 *Haur txikiei nola kantatu, kontatu…* ikastaroa Pello Añorgaren eskutik. *

**Otsailak 18**
18:30 *Irakurketaren garrantzia haurraren garapen emozional eta intelektualean* hitzaldia egingo du Juan Karlos Alonsok.

**Martxoak 4**
18:30 Juan Kruz Igerabidek haur literaturaren eta hizkuntza afektiboaren arteko loturaz jardungo du.

*Izena eman behar da aurrez.

DATUA

**50**

**MALETA**

Liburuz betetako 50 maleta osatu dituzte liburutegitik etxeetara maileguan eramateko. Urtez urte berritzen joango dira, umeendako liburu onak ezagutaraziz eta haur liburuaren kultura zabalduz.



Bergarako eta Arrasateko alkate ohi Jose Luis Elkoro (argazkian) eta Jose Luis Altunaz gain, gaur egungo hainbat udal ordezkarik esku hartu zuten. JOSETXO ARANTZABAL

**POLITIKA** > BAI EUSKAL HERRIARI EKIMENAREN 'GEUREA IKURRINA' AGERRALDIA

# Ozen aldarrikatu zen zapatuan Bergaran, ikurrina dela geurea

Jose Luis Elkorok eta Jose Luis Altuna 'Txatillo'-k igo zuten ikurrina udaletxeko balkoira

Bai Euskal Herriari ekimenaren agerraldiak gizarteko eragile askoren babesa jaso du

**MIREN ARREGI** > BERGARA

Ikurrinaren alde zapatuan egin zuten manifestazioak eta ekitaldiak debagoiendar mordoa hurbildu arazi zituen Bergarara. Helburua, ekitaldiko antolatzaileen eta alkateen hitzetan, euskaldunon ikur eta adierazle den ikurrina babestu eta kanpoko indarrek inposatutako ikurrekin bat egiten ez dugula ozen aditzera ematea.

1976ko uztailean Bergarak halako beste aldarrikapen batekin egin zuen bat; aldi hartan, Euskal Herriko 67 alkatek eta ehunka hautetsik Euskal Herriaren burujabetza eta ikurrinaren ofizialtasuna aldarrikatu zituzten. Zapatuan Debagoieneko alkate gehienak bildu zituen ekimenak, baina, baditu antzekotasunak, zalantza barik, 1976an Euskal Herriko 67 alkate biltzea lortu zuen aldarrikapenarekin. Izan ere, duela 33 urte ikurrinaren ofizialtasuna eskatzen bazen, zapatuan euskaldunon ikurra denaren berrestea eta bultzatzea izan ziren helburu, Bai Euskal Herriari ekimeneko kide Iker Dorronsorok adierazi bezala: "Espainiako bandera inposatzeko nahiaren kontra egin aurretik, gurea denaren alde egin behar dugulako".

Debagoieneko alkate eta zinegotziak izan ziren manifestazio buruan ikurrina erraldoia eroan zutenak: Bergarako alkate Agurne Barruso, Aramaioko zinegotzi Martin Arriolabengoa, Eskoriatzako zinegotzi Edorta Barandiaran, Arrasateko alkate Ino Galparsoro, Antzuolako Pedro Iturbe, Aramaioko Eusebio Villar eta Bergarako alkate ohi Jose Luis Elkoro, alegia. Bergarako kaleetan barrena egin zen manifestazioak, 'ikurrina bai, espainola ez" bezalako oihu artean egin zuen aurrera, ibilbidea plazan amaituz.

**IKURRINA UDALETXEKO BALKOIRA**

Manifestazioa herriko plazan amaitu zen, eta orduan hasi zen Bai Euskal Herriari ekimenekoek antolatutako ekitaldia. Hasi, Euskal Herriko ekitaldi gehienak bezala, bertso batekin hasi zen. Ordurako, Osintxuko Musiraka dantza taldekoak plazan zeuden euren tokia egiten; bukaeran, ikurrina balkoian ipini zutenean, dantzatuko zituzten ikurrinaren dantza eta aurreskua egiteko gorputzak eta arima berotuz. Une hori izan zen, plazan elkartu zen jendearen txalo zaparradari bide eman ziona. Hunkigarria benetan.

Ekitaldian, Bai Euskal Herriari ekimeneko Iker Dorronsorok eta Jose Luis Elkorok hartu zuten hitza, eta biek ere ikurrinari gorazarre egiteaz gain, "inposaketa arrotzek gure herriaren zatiketa helburu badute ere, gure herriak horri aurre egiteko moduak badituela" ekarri zuten gogora.

**GEUREA IKURRINA ADIERAZPENA**

*Geurea ikurrina* adierazpena babestu dute, besteak beste, LAB, EHNE eta ESK sindikatuek, Aralar, EA, Ezker Abertzaleak eta AEK eta AHT Gelditu Elkarlanak!.

ESANAK

**"Gaurko ekitaldiaren arrazoiak eta 1976an alkateek egin zuten ikurrina ofiziala izateko deiak baditu antzekotasunak"**

**Agurne Barruso** > Alkatea

**"Espainiako bandera inposatzeak gure herria zatitzea du helburu; gure ikurra den ikurrinak babesa behar du"**

**Iker Dorronsoro** > Antolatzailea

**HAUTESKUNDEAK**

## Ibarretik 22 hautagai Gipuzkoako zerrendatan

Zinegotzi dira Gipuzkoako listatan aurkezten diren ibarreko gehienak

**M.A** > BERGARA

Guztira 22 lagun dira Gipuzkoan hauteskundeetara aurkeztuko diren alderdietan dauden debagoiendarrak. Eusko Alderdi Jeltzalearen Gipuzkoako listatan, hiru dira ibarrekoak: Bergarako Jose Luis Garitano, eta Oñatiko eta Eskoriatzako zinegotzi Ainhoa Galdos eta Aitor Urrutia.

Alderdi Popularrean ibarreko bi daude: Itziar Lamarain Arrasateko zinegotzia eta Iñigo Arkauz arrasatearra, hain zuzen ere.

Alderdi Sozialistak hiru debagoiendar ditu Gipuzkoako listatan: Blanca Roncal, Paco Garcia eta Ainhoa Sagarribai zinegotziak, hain justu.

Ezker Batuko zerrendetan lau lagun aurkeztuko dira bailaratik, eta horiek dira, Isabel Salud bergararra, Blanca Merchan eskoriatzarra, Juan Luis Merino Eskoriatzako zinegotzia eta Carmelo Perez Oñatiko zinegotzia.

Demokrazia 3 Milioi alderdian Bergarako alkate Agurne Barruso da debagoiendar bakarra; eta Eusko Alkartasunak bi eroango ditu zerrendatan: Lauri Askargorta bergarako zinegotzia eta Esther Larrañaga arrasatearra.

Aralar alderdia da zerrendatan debagoiendar gehien dituen alderdia, bost kiderekin. Horiek dira Oxel Erostarbe eta Iñaxio Garro, Elgetako eta Aretxabaletako alkateak; Miren Arregi Oñatiko zinegotzia, Rebeca Ubera batzarkidea eta Juan Martin Elexpuru bergararra.

Askatasunak Gipuzkoatik aurkeztu dituen zerrendan bi dira ibarrekoak: Larraitz Madariaga eta Nagore Unamunzaga arrasatearrak.



**LEHIAKETA** > 'LABUR LABURRAK'

# Genero indarkeriaren kontrako film labur lehiaketa

Lanak ekainaren 22a arte aurkez daitezke Arrasateko Udaletxean

Sariak bi izango dira: irabazleak 400 euro, eta euskara saria 300.

**JASONE ZABALA** > ARRASATE
Arrasateko Udaleko Emakume Sailak antolatuta *Labur Laburrak* izeneko film laburren lehen lehiaketa egingo dute. Lehiaketako gaia emakumeen aurkako biolentzia da. Lanak entregatzeko azken eguna ekainaren 22a izango da.

**LEHIAKETAKO BALDINTZAK**
Lanen iraupena gehienez bost minutukoa izan beharko da; bestalde, lan bakoitza lan hori bakarrik edukiko duen oinarri batean aurkeztuko da DVD (.AVI) formatuan. Lanak babesteko, kaxa batean aurkeztuko dira; eta bertan, lanaren izenburua, iraupena eta egin zuten urtea jarriko dira; DVDaz gain, bakoitzak gutunazalean honako datuak aurkeztu beharko dira: azalean, lanaren izenburua, iraupena eta urtea; barruan, lanaren izenburua, egilearen izen abizenak, helbidea, herria eta telefonoa; eta baita fitxa teknikoa eta lanaren laburpen txiki bat ere.

Lana edozein hizkuntzatan aurkeztu ahal izango da, baina euskara edo gaztelera ez den hizkuntza batean idatzita badago, azpitituluak izan beharko ditu. Bi sari egongo dira: lehena 400 eurokoa eta bigarrena, euskara saria, 300 eurokoa.



MIREN ARREGI

## Arantzazu bisitatu du Irailaren 11ko Biktimen Elkarteko ordezkaritza batek

Irailaren 11ko Biktimen Elkarteak Euskal Herria bisitatu du, zapatuan, Sabino Arana Fundazioak eman zion saria jasotzeko. Euskal Herrira bidaia aprobetxatuta, Arantzazuko Baketik zentroa bisitatu zuten egubakoitzean, Bakearen Nazioarteko egunean. Bake zentroaren lana ezagutu eta Arantzazuko Santutegia bisitatu zuten. Irailaren 11ko Biktimen Elkarteko sei lagun izan ziren gurean; lau emakumezko eta bi gizonezko, tartean Lee Ielpi presidentea eta Jennifer Adams presidenteordea.

etxeko leihotik



**Usoa Agirre** > 'uagirre@goiena.com'

## .EUS: Interneten euskara sustatzeko

Euskara eta euskal kultura Interneten sustatzeko PuntuEus elkartea aurkeztu zuten joan den eguenean. Elkartearen esanetan, Interneteko eremu birtualean nazioarteko aitorpena eskainiko dion ikur edo sinboloa sortzea da erronka: .EUS domeinua, hain zuzen ere.

Orain dela gutxi, Kataluniako lagun batek galdetu zidan ea Euskal Herrian ez zegoen domeinu propioren bat sortzeko ekimenik, beraien .CAT horren antzera. Hala gogoratu dut duela urte batzuk, .EU domeinua Europar Batasunarentzat izango zela esan zutenean, hasi ziren zenbait ekimen Euskal Herriarendako ere domeinu propioa sortzeko. Eztabaida sortu zen ea behar al genuen domeinu propiorik eta, behar bagenu, zein: .EH (Mendebaldeko Sahararen domeinu aktibatu gabea), .EUS… Baten batek bota zuen ideia Tindufeko agintaritzari domeinua aktibatzen lagundu eta haren kudeaketa eroatea Euskal Herritik. Baina, horretan gelditu zen kontua, ideia hutsean.

**".EUS ez da izango .ES-en parekoa, euskararekin lotua egongo da"**

Orain, berriz, eztabaida hura ia ahaztuta genuenean, zenbait erakunde eta eragile elkartu eta PuntuEus elkartea sortu dute. .EUS domeinua ez da izango .ES edo .FRren parekoa, euskararekin eta euskal kulturarekin lotutako domeinua izango da, baina ongi-etorria izan dadila! Atxikimendua adierazteko, jo *www.puntueus.org* webgunera.

**> Webguneei**
**.EUS domeinua jarriz bakarrik ez dugu lortuko euskara behar bezala sustatzea Interneten. Horretarako, euskara ere erabili behar da sarean. Baina, laguntzen badu, dudarik gabe, nire babesa ere izango du.**

**> Asteon jakin dut**
**.CAT domeinuak erosten hasi direla katuen gaineko webguneak egin ahal izateko. .EUS-ekin horrelakorik gertatuko ote da? Batek daki! Osaba Eusebiorendako, adibidez, domeinu egokia izan daiteke .CAT hori.**

**POLITIKA** > AZKEN ATXILOKETEN AURREAN ARALARREN IRITZIA

# Aralar: "Batasunekoen espetxeratzeak politika egiten dutenei ateak ixten dizkie"

**J.Z.** > BERGARA
Debagoieneko Aralarrek prentsa ohar baten bitartez jakinarazi du Batasuneko kideen espetxeratzeak beste ezker abertzalean politika egin nahi dutenei "ateak ixtea" dakarrela. Jarraitzen du honako hau esanaz: "Batasunako zortzi kide kartzelaratzeko Baltasar Garzon epaileak hartutako erabakia guztiz deitoragarria da. Tinko gaitzetsi beharrean gara Espainiako estatuak Entzutegi Nazionalaren bidez daraman politika erresiboa, bake bideetatik erabat urruntzen gaituena. Elkartasun guztia agertu nahi diegu espetxeratutako zortzi pertsonei". Horrekin batera esan dute, "zentzugabekeria juridiko eta politikoa dela bere jarduera politikoa egiteagatik alderdi bateko kideak kartzelaratzea". Zentzu honetan hau gehitu dute: "Onartezina da ideien jazarpena eta kriminalizazioa, eta Debagoieneko Aralarrek berretsi nahi du Alderdien Legearekiko erabateko kontrakotasuna".

**IDEIEN KRIMINALIZAZIOA**
Debagoieneko Aralarrendako "lege ankerra" da, eta Espainiako Estatuari gogorarazten dio "ideiak ezin direla kriminalizatu. Espetxeratutakoak kriminaltzat hartzen dira ideia jakin batzuk defendatzeagatik". Horregatik eskatzen dute, "pertsona hauek, eta Batasunarekin lotura izateagatik preso dauden guztien berehalako askatasuna, bai eta pertsona hauek hauteskundeetan aurkeztu eta aukeratuak izateko duten eskubidea bermatzea".

Demokrazia batek herritar guztiek sentsibilitate politikoa ordezkatuko duen alderdia aukeratzeko eskubidea ziurtatu behar duela adierazi dute, eta "herritarrak izan daitezela erabakiko dutenak nork behar duen ordezkaritza eta nork ez instituzioetan".

Ondorengoa ere eskatzen dute: "ETAri alde bakarreko etena egitea; Audientzia Nazionala desagertzea ere beharrezkoa da, normalizaziorako eta giza eskubideen defentsarako bidea erraztu dezakeelako horrek".

> GERTAKARIA

## 31 urteko gizonezko bat hil da Arrasateko San Andres auzoan

Ertzaintzaren arabera gizonezkoa 13:00ak aldera aurkitu zuten ondoezik. Udaltzainak lekura joan ziren eta gizonezkoa suspertzen ahalegin ziren baina ezin izan zuten ezer egin haren alde. Hildakoa arrasatearra da, 31 urteko gizonezkoa.

San Andres auzoko Kurtzetxiki plazaren inguruan gertatu zen ezbeharra atzo arratsaldeko lehenengo orduan. Ertzaintzak esan digu gizonezkoari zer gertatu zitzaion argitzeko Donostiara eraman dutela gorpua autopsia egitera. Badirudi bihotzekoak jota hil zela.

**ENPRESAK** > CEGASA

# Langileek mesfidantzaz hartu dute zuzendaritzaren asmoa

Gasteizen ikerkuntza eta garapen jarduerei eutsiko dietela dio enpresak

Lan Sailak datozen egunotan erabakiko du lan erregulazio txostenaren gainean

**E.M.** > BERGARA

Cegasa enpresako iturriek adierazitakoaren arabera, Gasteizko lantegian ikerkuntzarekin eta garapenarekin lotutako jarduerei eutsiko diete. Era berean, kanpoan erositako eta egindako pilen etiketatua eta paketatze lanak, zuzendaritza eta taldeko beste enpresen administrazioa eta giza errekurtso lanak Gasteiztik egiten jarraituko lukete. Enpresak 217 langileri eragiten dien lan erregulazio txostena aurkeztu du eta hori dela eta langileek mesfidantzaz ikusten dute zuzendaritzak esandakoa. Gasteizko lantegia itxi eta pilen produkzioa Txinara eraman nahi dutela salatu dute. Enpresaren arabera, pilen produkzioarekin 23 milioi euro galdu zituzten joan den urtean. 2003-2007 urte bitartean %15 jaitsi da, bataz beste, Cegasa pilen prezioa. Sindikatuak ez daude ados enpresak emandako datuekin: galeren kontua ikuskatu gabeko balantze batetik irtendakoa dela diote eta pilak fabrikatzea oraindik errentagarria dela diote. "Lan erregulazio txostena zentzugabekeria hutsa da eta goitik behera ondo aztertzea eskatzen diogu Jaurlaritzari". Jaurlaritzako Lan Sailak datozen egunotan emango du lan erregulazio txostenaren gaineko erabakia.



Irudian, Cegasak Oñatin duen lantegia. GOIENKARIA

**OÑATIKO LANTEGIA**

Juan Zelaia Oñatiko enpresa gizon ezagunaren Cegasa enpresak 1970eko hamarkadan ezagutu zuen garairik oparoena. Gaur egun 13 herrialdetan ditu lantegiak Cegasak. Oñatikoan industria erabilerarako pilak egiten dituzte eta oraingoz behintzat lan erregulazio txostenak ez die eragiten hango langileei, jarduera errentagarria izaten jarraitzen duelako.

**DEBAGOIENA** > TURISMOA

# Mankomunitateko turismo eskaintza Madrilen, Fiturren

Jaurlaritzak barrualdeari eskainitako 'atal berdean' kokatu dute Debagoieneko eskaintza

**E.M.** > BERGARA

Atzo amaitu zen Madrilen, Fitur, nazioarteko turismo feria. Eguaztenetik domekara bitartean Debagoieneko eskaintzak bere tokia izan du Eusko Jaurlaritzaren standean; barrualdeari eskainitako *atal berdean* kokatu dute Debagoieneko eskaintza. Ignaziotar Lurraldea (Urola Garaia eta Urola Behearekin batera) eta Oñatiko Arrikrutzeko kobak izan dira izar nagusiak. 13.500 enpresa, 157.000 profesional inguru eta jende mordoa batu da Fiturren.

**OÑATIKO TURISMO BULEGOA**

Bestalde, azpimarratu beharra dago ICTE delakoaren (Instituto para la Calidad Turistica Española) gala ospatu zela eguaztenean, Fitur feriaren barruan. Jakingo duzuenez, Oñatiko Turismo Bulegoak kalitatezko Q-a lortu zuen 2006an eta orain auditoriak eta bestelako azterketak gainditu behar izan ditu kalitatezko ikurrari eusteko. Ernesto Murgiondo Oñatiko Turismo zinegotzia pozik azaldu zen jasotako onespenarekin.


Ernesto Murgiondo, Lourdes Romano eta Javier Elizegi Fiturren, Madrilen.

**ENPRESA**

## Ibili, sukaldeko tresnen eskaintza zabalduz

Gozogintzako produktuetan dago espezializatuta Bergarako enpresa

**E.M.** > BERGARA

Sukaldeko tresnak egiten dituen Ibili Menaje enpresak produktu berrien aldeko apustua egin du. Dagoeneko horietako batzuk merkatura atera ditu Bergarako enpresak eta beste hainbat laster jasoko dituzte katalogoan, hala nola *sushi* egiteko moldeak, pasta egiteko makinak, indukziorako aluminiozko zartaginak edota gozogintzarako beirazko produktuak. Ibili gozogintzako produktuetan dago espezializatuta eta hori enpresaren salmenten %35 da.

**ETXEKO MERKATUA NAGUSI**

Gaur egun, salmenten %85 etxeko merkatura bideratuta dago eta gainerako %15 ostalaritzara. Salmenta gehienak Espainiako estatuan egiten badituzte ere, %15 esportaziora zuzentzen dute Frantziara, Portugalera eta Marokora nagusiki. Baina, Kanada, Belgika, Holanda, Argentina edo Libanora ere heltzen dira Ibiliren produktuak. 1942an sortutakoa, gaur egun Marcos Larrañaga taldean integratuta dago Ibili.

**2008, URTE ONA**

Iazkoa urte ona izan zela adierazi dute enpresako iturriek eta 2009rako salmentei eustea da helburu nagusia, gaur egun hazteko diren zailtasunak kontuan izanda. Kontsumoaren beherakadak enpresarengan izan dezakeen eraginagatik kezka azaldu dute Ibiliko arduradunek.

> KRISIA

### Gipuzkoako enpresen erdiak plantilla txikituko du aurten

Adegi EAEko enpresarien elkarteak jakinarazi du, egin duten inkestaren arabera, Gipuzkoako enpresen %47k plantilla jaitsi egingo duela aurten. Ondorio horiek jaso dituzte hamar langile baino gehiago dituzten 300 enpresetako ordezkariekin egindako inkestari esker.

Horren harira, Adegik uste du langabeziaren tasa lau puntu igoko dela; eta enpresariek plantillen %6,5 kanporatuko dutela, bataz beste.

auzorik auzo

**ALTZAGA** > Aramaioko auzoa da Altzaga, Gasteizko bidea hartu eta bi kilometrora dago, Kurtzetara bidean. Auzo txikia dela esan digu hango auzo-alkateak: guztira sei baserri daude auzoan, eta beste bi kanpoaldean.



Auzo-alkate Marian Beitia, auzoaren sarreran, atzean auzoa duela. Iturrondo baserrian bizi da. ARANTZAZU EZKIBEL

**Marian Beitia** > Auzo-alkatea

# "Plan Orokorreko lehenengo proposamenaren arabera ezingo da etxerik eraiki"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARAMAIO

**Marian Beitia Altzagako auzo-alkatearekin egin dugu hitzordua auzoan. Altzagako gorabeherez egin dugu berba; Beitiak dio Udala orain aztertzen dabilen Plan Orokorraren gaiak izan ditzakeen ondorioez kezkatuta daudela.**

**Auzo txikia izanda, zenbat biztanle ditu Altzagak?**

25 pertsona inguru biziko dira Altzagan; auzo bezala nahiko txikia da. Esan behar da auzoak ez duela inongo pasorik; hau da, ez da inora joateko bidea, bertara etorri beharra duzu.

**Eta, azken urteetan biztanleriak gora edo behera egin du?**

Gure gogoa biztanle kopurua handitzea da, baina ez dakigu zer gertatuko den. Izan ere, arazo bat izan dezakegu: Plan Orokorra lantzen dabiltza orain, eta lehenengo proposamenaren arabera, Altzagan eta beste auzo batzuetan ezingo litzateke etxebizitzarik eraiki. Bada, auzotarren artean bazegoen asmoa beste bi etxebizitza eraikitzeko, baina ez dakigu zer gertatuko den.

**Auzotarrak erabaki horren aurka zaudete, hortaz.**

Bai, hasiera baten, aurka gaude. Orain arte posible izan da eraikitzea eta gure nahia zen aurrerantzean ere beste bi etxebizitza eraikitzea. Ez dugu eskatzen etxebizitza mordoa eraikitzea; baina ezta eraikitzeko posibilitatea desagertzea ere.

**Auzoan saneamendu arazorik baduzue ala dagoeneko lanak eginda daude?**

Saneamendu lanak orain zazpi urte inguru egin ziren. Alde horretatik nahiko ondo gaude; saneamendu lanak egin zituztenean aprobetxatu zuten elektrizitateko kableak, telefonoa eta gasa, besteak beste, lur azpian sartzeko. Alde horretatik ondo prestatuta gaude, ez daukagu eskaera handirik.

**Noiz ospatzen dituzue Altzagako jaiak?**

Altzaga auzoa da, baina eliza moduan Azkoagaren menpe gaude; hortaz, jaiak eta beste ekitaldi batzuk Azkoagarekin batera antolatzen ditugu. Sanjuanak dira Altzagako jaiak, Azkoagarekin batera antolatzen ditugu. Jai eta ekitaldi gehienak Azkoagako plazan egiten ditugu.

Bestalde, sanadrianak ospatzen ditugu Azkoaga eta Zabola auzoekin batera. San Adrianera igotzen gara eta bazkaria egiten dugu denon artean. Irailaren lehenengo astean ospatu izan dugu azkeneko urteetan; baina orain dela bi edo hiru urte hasi ginen antzinako erara, ekainean ospatzen. Lehen horrela egiten zen, sanjuanak baino aste pare bat lehenago ospatzen zen sanadrianak.

**Proposatu auzoan egiteko ibilaldi bat.**

Altzagatik joan daiteke Kurtzetara bide zaharretik; Gureiatik pasa eta handik Kurtzetako bide zaharra hartzen da. Hara iritsita, ibilbide ugari egiteko aukera dago. Beste aldera, auzoko atzeko aldetik San Adrianerantz joateko aukera dago.

BASOKO LANA

## "Auzoko mutilek basoan egiten zuten lan, iduria egiten"

Marian Beitiaren aitak, Felipek, azaldu digu garai batean auzoko mutil gehienak basoan ibiltzen zirela lanean, egurra bota eta ikatza egiten. "Baita iduria ere, hura abarraz egiten zen", gogoratu du. Orduan ez zegoen gasik, eta Gasteizen, adibidez, estufetan erabiltzen zuten iduria. Ikatza baino merkeagoa zen iduria, eta horregatik erabiltzen zuten.

Bestalde, auzoan hainbat karobi daude. "Ikatzaren antzera egiten zen. Harria gurdian ekartzen zuten; gero, hiru astez egosten eduki behar izaten zen karobian, eta modu horretan kala egiten zen", dio Felipek.

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Urtarrileko zozketa

Sariak irabazteko HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
40 euro abendura arte

SARRERAK
Irabazleak:
BRUESA GBC- CAJASOL
Jose Luis Carnicero (Bergara)
Floren Arana Barandiaran (Aramaio)

BRUESA GBC- IURBENTIA
BILBAO BASKET
Luis Elexpuru Untzueta (Aretxabaleta)
Marga Zabaleta (Arrasate)

UMEENTZAKO LIBURUAK

Pamiela argitaletxearen umeentzako liburuak.
Irabazleak:
Juan Arriolabengoa Lasaga (Aramaio)

ZIRA

EKFB Euskal Selekzioko zira bat.
Irabazleak:
Iñigo Eriz Unzueta (Aramaio)

KAMISETA
DANBAKA

Danbakako kamiseta bat.
Irabazleak:
Xabier Uribeetxeberria Bolinaga (Arrasate)

SARI NAGUSIA:
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
URDAIBAIKO URRESTI LANDETXEAN GAU BAT


www.toprural.com/urresti
Benetako landetxea Urdaibaien!
Taldeentzat %10-eko deskontua

Garaia Berrikuntza gunean 'Innovation Cities' jardunaldiak egin zituzten joan den egubakoitzean, eta bertan, giza nukleo huts izan barik, talentua eta sorkuntza erakartzeko ahalmena duten hiriak izan ziren protagonista. Berrikuntza ardatz, jardunaldietan parte hartu zuten hirigintza adituek etorkizuneko beharretara egokituko diren hirien ezaugarriak aztertu zituzten.

**Alfonso Vegara** > Arkitektoa eta Metropoli Fundazioko zuzendaria

# "Hiriak desberdindu eta ezagutzaren gizartera egokitu beharko ditugu"

**MIREN ARREGI** > ARRASATE

**Arkitektoa, ekonomista eta soziologoa, hiru jakintza horiek batuta etorkizuneko gizartera egokitu eta hiri lehiakor izango direnek zein ezaugarri beharko lituzketen garbi du Alfonso Vegarak. Hiriak nortasuna izango badu, ezinbestekoa da garapen jasangarria, diseinua, ingurugiroarekiko errespetua edota kohesio soziala bezalako kontzeptuak aintzakotzat hartzea. Metropoli Fundazioak ezaugarri horiek guztiak biltzen dituen proiektuak gauzatzeko helburua du, erakunde publiko nahiz enpresa pribatuek garapen horren aldeko apustua egin dezaten.**



Alacanteko arkitektoa Garaia Berrikuntza gunean izan zen egubakoitzean.

GOIENKARIA

**Euskal Herriaren kasuan, zer da ezinbestekoa gure herriak etorkizuneko beharretara egokitzeko?**

Euskal Herriak iraultza industrial bat jasan zuen lehenengo, eta azken 25 urteotan garapen urbano itzela ere jasan du; Bilboren garapena itzela izan da, baina, Donostia, Gasteiz, Arrasate edota Bergarak ere transformazio hiritar miresgarria jasan dute. Bi fase horiek pasatuta, orain beste pausu baten aurrean gaude; ezagutzaren iraultza dugu aurrean. Gure lurraldeek ezagutzaren gizartera egokitzeko bideak ireki behar dituzte. Talentua landu behar da, eta talentua erakarri behar da. Horretarako, hiri erakargarriak behar ditugu, eta hirigintzaren kalitatea eta lurraldearen kalitatea oso garrantzitsuak dira helburu hori lortze bidean.

**Eta zeren beharra dago erronka horri aurre egiteko?**

Ideiak dituen lidergotza. Hori ezinbestekoa izango da gure hiriak desberdintzerakoan. Lidergorik edo proiekturik ez duten hirietan ez da inoiz ezer gertatzen eta atzean gelditzen dira. Ideia garbiak eta sorkuntza duten alkateek gizarteko eragileak, enpresariak, gainerako administrazioak eta herritarrak konbentzitzeko duten kapazitateak aurrera egiteko bideak irekiko ditu.

**Gai gara erronka horiei aurre egiteko?**

Metropoli Fundazioak azterketa hori egin du munduko hainbat tokitan. Bost kontinentetako 20 hiri ikertu ditugu eta hiri horiek elkarren artean dituzten elementu komunak identifikatzen saiatu gara. Gizarte eredu berriek ezarritako erronkei aurre egiteko gai diren hiriei *lurralde inteligente* izendapena eman diegu. *Lurralde inteligente* horien arteko ezaugarri komunak dira lidergo sortzailea, igurumenarekiko errespetua, kohesio soziala, etorkizuneko proiektu bat izatea… Aspektu horiek guztiak dituzte gaur egun arrakasta ekonomikoaz gain, arrakasta soziala eta ingurugiro arrakasta duten hiriak. Hiru alderdi horien arteko oreka bilatzea ezinbestekoa da.

**Herrialdeen artean desberdintasunak daude proiektuak garatzerakoan?**

Desberdintasun handiak daude. Eta ez dago formula zehatzik, horregatik, erreferentziak izatea da garrantzitsua. Kohesio sozialari, ingurumenarekiko errespetuari, garapen jasangarriari edota bizi kalitateari dagokionez aztertu dugun hiri lehiakorrena, Brasilgo Kuritiba hiria da. Hiru milioi biztanle dituen hiria da eta izan duen lidergoari esker, Kuritibak Brasilgo hiriburu ekologikoa izatea lortu du. Ingurumenarekiko sentsibilitatateari eta gai ekoteknologikoei edota parkeei dagokionez oso berritzaileak dira Kuritiban. Euskal Herrian Gasteizek ere asko jaso du Kuritibaren proiektutik.

EZAGUTZAREN GIZARTEA

**"Epe motzean, gure lurraldeek ezagutzaren gizartera egokitzeko bideak ireki behar dituzte"**

EUSKAL HERRIA

**"Euskal Herriaren erronka nagusia hirigintza ereduaru dagokionean, berrikuntza da"**

SARRIGUREN

**"Sarriguren hiriaren diseinuan aniztasuna, eta garapen jasangarria izan ditugu ardatz "**

**Zeintzuk dira Euskal Autonomia Erkidegoaren erronka nagusiak hirigintzan?**

EAEk XXI. mendean izango duen erronka nagusia berrikuntza da. EAEk bi milioi biztanlde ditu eta hiri estruktura plurizentrikoa du. Hiru hiriburu daude eta baita bigarren mailako herri sare bat ere. Horiek guztiak interkonektatuta daude elkarren artean eta nazioarte mailan interesa piztu duen eredu bat da, *ciudad-region* deitzen zaiona. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoa berrikuntzan inbertitzen dabil eta alde horretatik EAE etorkizuneko habitata ikertzeko laborategi bat dela esan genezake; izan ere, lan handia egiten dabiltza hemen. Bilbok izandako eraldaketa prozesua da aldaketa horren adierazle.

**Sarriguren Eko-hiria zuek diseinatu duzue. Hori izan daiteke adibide bat?**

Bai. Nafarroako Gobernuak bultzatutako proiektua da, eta guk egin dugu diseinua. Sarriguren Eko-hiriko ezaugarri nagusiak dira, besteak beste, ingurunearekin eta paisajearekin armonia bilatzea edota erabilera anitzeko gunea izatea, ez dadin jendea lotara bakarrik joaten den herri baten bilakatu. Erabilera anitzeko guneak eraiki behar dira, aniztasun handiko guneak, era guztietako aktibitateak eta era guztietako herritarrak bildu eta kohesionatuko dituztenak. Horrek eskatzen du, beste batzuen artean, etxebizitza tipologia desberdinak eraikitzea, eta baita produkzio bide anitzak ere. Eko-hirietan berebiziko garrantzia duen gai bat arkitektura bioklimatikoa da, eta energiaren aurreztea eta energia iturri berriztagarriak erabiltzea, zer esanik ez; eguzki indarra, fotoboltaikoa… eta noski, zaborraren eta uraren kudeaketa horien artean.






# guztiona, guztion artean

## HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

**Eskoriatza/Gatzaga**
**Luis Ezeiza Eskola**
- Tel.: 943 71 49 38
- bilera eta ate irekiak: Otsailak 2, 17:00-19:00

**Aretxabaleta**
**Kurtzebarri Eskola**
- Tel.: 943 79 00 49
- bilera: Urtarrilak 28, euskaraz: 18:00 gazteleraz: 19:00

**Arrasate**
**Arrasate Herri Eskola**
- Tel.: 943 79 20 69
- bilera: (Bedoñabe) Otsailak 2, 18:00 (Musakola) Otsailak 3, 18:00

**Aramaio**
**San Martin Eskola**
- Tel.: 945 44 50 04
- bilera: Otsailak 2, 18:00

**Bergara**
**San Martin Agirre Eskola**
- Tel.: 943 76 21 47
- bilera: Otsailak 3, 18:30 Ate irekiak: Urtarrilak 31, 16:30-19:30

**Antzuola**
**Antzuolako Herri Eskola**
- Tel.: 943 76 62 68 Informazioa: Otsailak 3tik aurrera

**Elgeta**
**Elgetako Herri Eskola**
- Tel.: 943 76 82 26 Informazioa: Otsailak 3tik aurrera

**Oñati**
**Errekalde Herri Eskola**
- Tel.: 943 78 07 64 Ate irekiak: Urtarrilak 31, 16:30-19:00

## BIGARREN HEZKUNTZA

**Arrasate**
**Arrasate Institutua**
- Tel.: 943 79 44 47
- Tel.: 943 79 20 38
- bilera: (Arrasate Musakolako eraikuntza) Otsailak 4, 18:00 (Aramaio S. Martin Eskola) Otsailak 5, 18:00

**Aretxabaleta**
**Kurtzebarri BHI**
- Tel.: 943 79 57 40
- bilera: Otsailak 3, 18:00

**Bergara**
**Ipintza Institutua**
- Tel.: 943 76 31 42
- bilera: Otsailak 5, 18:30

**Oñati**
**Zuazola Larraña Oñatiko BHI**
- Tel.: 943 78 12 68
- bilera eta ate irekiak: Otsailak 3, 18:00

goieskola@euskalnet.net
www.goieskola.net
605 773 992

goieskola
debagoieneko euskal eskola publikoa

## HELDUEN HEZIKETA IRAUNKORRA

**Arrasate**
Ferrerias 28
- Tel.: 943 77 11 72

**Aretxabaleta**
Markole 5
- Tel.: 943 79 88 50

**Eskoriatza**
Intxaurtxueta 20
- Tel.: 943 79 36 41

**Bergara**
Irizar jauregia.
Barrenkale 33, 2.
- Tel.: 943 76 44 52

**Oñati**
Zuazola Institutua
Aita Madina z/g.
- Tel.: 943 78 35 77

baikara
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

**kale inkesta**

# Hauteskunde eta aurre-kanpainetan gertatzen denari kasurik egiten diozu?



**Jesus Mari Aranburu**
Langilea
Oñati

Ez diot hauteskunde kanpainari erreparatzen. Hala ere, komunikabideetan beti entzuten da zer edo zer, eta niri behintzat haserretzeko besterik ez dit balio izaten. Botoa eman egiten dut, beti etsaiaren kontra.



**Sorkunde Iñurritegi**
Langilea
Oñati

Politikoek aurre -kanpainetan agintzen dituzten gauzak entzun egiten ditut, baina kasu gutxi egiten diet. Ez dut politikoengan konfiantzarik, gauza asko agintzen dituzte, baina gero ez dute ezer betetzen.



**Sergio Salazar**
Langilea
Oñati

Ez naiz sekula botoa ematera joan eta ez dut politikoen esanetan sinisten. Izan ere, behin boterera iristen direnean gura dutena egiten hasten direla uste dut. Gainera, ez dut gehiegi jarraitzen politika arloa.



**Iñaki Arregi**
Langilea
Oñati

Egia esan, aurrekanpainak jarraitzen ditut, baina, egia esan, zeharo aspertuta naukate. Ez dut ezertan sinisten, orain arte gezur mordoa esan digute eta hemendik aurrera ere hala jarraituko dute, ziur.

**irakurlearen txokoa**

## 943 25 05 05

## goienkaria@goiena.com

OÑATI
**> Aloña Mendiko eskubaloi saila zoriondu**

Oñatiko herritar batek deitu du zapatuan Oñatiko Zubikoa kiroldegian ospatu zuten Asobal ligako bi talderen arteko adiskidantzazko partidua dela-eta. Oñatiar horrek jakinarazi du maila handiko bi talde izan zirela lehian Oñatin –Leongo Ademar eta Eibarreko Arrate– eta Aloña Mendiko Eskubaloi Sailaren ahalegina eskertu nahi du.

BERGARA
**> Agorrosin ekintza guneko gimnasioa txiki gelditu da**

Bergarako irakurle batek deitu digu Agorrosingo ekintza guneko gimnasioan dagoen espazio faltaren inguruan bere iritzia emateko: " Gimnasioa erabiltzen dut astean lau aldiz eta jende asko joaten da hara; ondorioz, gimnasioa txiki gelditu da", esan digu irakurleak.

BERGARA
**> Agorrosineko futbol zelaia egoera txarrean**

Bergarako herritar batek deitu digu eta ondorengoa jakinarazi nahi izan du: "Zapatuan Bergara eta BTLS taldeen aurkako derbia ikustera joan nintzen; aspaldi egon gabe nengoen bertan, baina futbol zelaiaren egoera oso eskasa iruditu zitzaidan; futbolari askok min hartu dezakete halako zelai batean jokatzen badute. Hortaz, dagokienari eskatuko nieke zaindu dezatela gehiago zelaia".

**usteak uste**

Arantzazu Ezkibel

## Neguko jaixak

Negua ez dogu jaixekin lotzen; horretarako udara dakula esan leike. Baina, egutegixari begira jarritta, konturatu naiz negu partian be nahikua jai izaten diala han eta hemen. Astion, esaterako, San Blasak ospatuko dia ibarreko hainbat auzotan; hala, ez dia faltako San Blas opillarik, ezta bedeinkatutako galleta eta gozokirik be. Gurian, behintzat, amak ekarten dittu galleta bedeinkatuak. Hori izango balitz min danen erremedixua... Gero, Santa Ageda ospatuko dogu: *Ez gaude oso aberats diruz...*, aurtenguan, kopliak bere osotasunian izango dau zentzua. Eta, azkenik, Aratustiak. Mondrauen hasi dia bideua gertaketan; izan be, azken urtietan Aratustiek indarra hartu daue herrixan. Zorionak lanian dabiltzanei!

**zorroztailea**



Joxemari Muxika

# Antolakuntzaren indarra

"Auzi hori Frantziako Estatuaren huts estrategiko bat da. Elkarteari tribuna bat eskaini dio. *Le Monde* egunkariak auzi egunean hirugarren orrialde osoa eskaini dio auziari. Giza Eskubideen Ligak eta pertsona anitzek eta anitzek salatu dute elkarte askatasunaren urratze hori. Prefetak isilik egoteko aukera bat galdu du."


Harian : Euskal Herria
«Une batez, prefeta-eta damutu dira auzia bultzatu izanaz»

Berria > 2009-01-31

Epaitegian Ganbera eta Euskal herria izena erabiltzeaz eta Chambre d'Agriculture-ren egitekoa usurpatzeaz eztabaida izan dute. Eztabaida horretan Berhokoirigoin lehendakariak argi esan du EHLG (Euskal Herriko Laborantza Ganbera) elkarteak ez duela izan behar tresna instituzionala, hori beste zerbait dela eta Euskal Herriarentzako tresna instituzionala aldarrikatzen duen arren, ez dela horretara kolaborariek eurentzat antolatu duten ganbera.

Paben egoitza duen Chambre d'Agriculture delakoak laborari askoren beharrak betetzen ez dituenez eta haren egiteko instituzionaletan sartu gabe, Ipar Euskal Herriko baserritarren beharrei erantzuteko zerbitzuak ematen dituen elkartea da EHLG. Erakunde honek sostengu zabala izan du, laborariena ezezik baita herrietako agintariena ere. Planteamendu serio bati erantzunez antolatutako erakundea da martxan jarri dutena.

Ados nago laborariek euren beharrak asetzeko bitartekoak lortzeko modua jartzearekin, zezenari adarretatik heldu eta konponbidea jartzeari ekin diote eta. Adibide ederra eman digute iparraldeko hiritarrek; besteak noiz egitearen zain egon beharrean, arduratzen dituzten arazoei heldu, antolatu eta konponbideari ekin, hain zuzen ere.

**"Euren beharrak asetzeko, laborariek zezenari adarretik heldu diote"**

**"Zerk kezkatzen du Prefekta? Ez dago inorek egindako salaketarik?"**

Eta Frantziako agintaritza estatalak, erakundea eta bere lehendakaria epaitegira eraman ditu. Zerk kezkatzen du ba Prefekta? Ez dago inori kalte egitearen salaketarik, ezta inoren eskubiderik zapaltzearenik ere.

Horren aurrean honako galderak datozkit burura: ez al da izango euskaldunek euren erabakiak hartzeko eta antolatzeko izan duten gaitasunak Prefekta arduratzen duela? Ez al da izango bere egunean Batera Plataformak martxan jarri zituen lau eskarietatik biri de facto abiera emanak ere kezkatzen duela? Alegia, iparraldeko jendearentzat antolaketa propioa izatea eta erakunde pribatua izanik euskarari lehentasuna ematea, hain zuzen ere.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Arantzazu Ezkibel, Miren Arregi, Jasone Zabala **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



**> ARRASATE**
Aratusteetako komisiñuek *Mozorrotu ala hil!* leloa izenpean, egitaraua egin du zapaturako **> 15**



**> BERGARA**
Laster bukatuko dituzte Santa Ana parkeko bidetxoa konpontzeko lanak **> 16**



**> LEINTZ GATZAGA**
Zuzendaritza berritu du Gurel guraso elkarteak, eta Aratusteetarako egitaraua prestatu du **> 20**

**ELGETA** > 'ELGETA DANON ARTIAN'

# Herritarren eta Udalaren arteko lotura estutzeko, 'Elgeta danon artian'

**PARTE HARTZEA**
25 urtetik beherakoen parte-hartzea bota dute faltan; guztira 105 inkesta jaso dituzte

**LEGEALDIKO PLANA**
Planean zehaztutako ildoak herritarrei zuzenean eragiten dizkien gaiak dira



Herrirako garrantzitsuak diren gaien gainean herritarren iritzia jakin gura izan du udalak. JOSETXO ARANTZABAL

**MIREN ARREGI** > BERGARA

Herri bat kudeatzeko, herriko beharren diagnostikoa egin eta horren araberako proiektuak gauzatzeko, herritarren iritzia jasotzea ezinbesteko baldintza izan beharko litzatekeela pentsatzea logikoa izanik ere, ez da ohikoena udalek, herritarrei herriko beharren gainean galdetzea. Elgetan, baina, 2011ra arteko legealdian gauzatuko diren egitasmoen gainean, herritarren eskaerak eta iritziak kontutan hartzeko erabakia hartu dute, horretarako 68 galderaz osatutako inkesta proposatuz. Herritarren parte-hartzea bultzatzeko egitasmo soila izan ordez, Udalaren eta herritarren arteko lotura estutu gura izan dute Elgetan *Elgeta danon artian* egitasmoarekin.

**ADOSTASUN ZABALA**

2011ra bitarteko legealdi planean zehaztutako ildo estrategikoak kontutan hartuta, diseinatu da inkesta bera ere, eta arlo horiek izan dira herritarrek aztertu dituztenak; hala nola, zerbitzuak, mugikortasuna, zaborra, aisialdia, garraioa, parte-hartzea, etxebizitza, hizkuntza, komertzioa eta herriko zerbitzuak; eta baita ura eta uraren kudeaketa.

Inkestan jasotakoaren arabera, elgetarrek begi onez ikusten dituzten gaien artean daude, esaterako, herritarrei ematen zaien arreta zerbitzua, kaleetako txukuntasuna, herritarren parte-hartzea, ur kalitatea eta ur saneamendu sistema.

Baina, bestetik, hainbat gai bultzatzeko ahalegin berezia egin beharko litzatekeela uste dute inkesta egin dutenek. Horien artean dago, besteak beste, garraio publikoaren ugaritzea; izan ere, gehienek adierazi dute garraio publikoa lanera joateko edo aisialdirako erabiltzeaz gain, etxeko erosketak egitera kanpora irteteko ere erabiliko luketela. Horrekin hasita, baina, esan behar da, elgetarrek, aukeran, nahiago luketela herrian bertan komertzio espezializatuak izatea. Horren aurrean, Oxel Erostarbe alkateak adierazi digu dabiltzala herrian komertzioak zabaltzeko beharra sakonki aztertzen eta hori bideragarri egiten. Horretaz gain, Elgeta hobetzeko lehentasunen artean sartu dituzte kiroldegia egitea, udal eraikin batetan erretiratuendako egoitza finkatzea, kaleetan oinezkoek lehentasun osoa izatea, herrian aparkalekuak ipintzea, Asentzio sarreran aparkalekua egokitzea eta Asentzioraino bertaraino ibilgailuak sartzea debekatzea, wifia ipintzea, berritzen diren etxebizitza zaharren kopurua igotzea –izan ere gehienek uste dute etxebizitza nahikoa dagoela herrian–, edota herrian komertzio espezializatuak irekitzea.

ESANAK

**"Adostasun zabala izan duten proiektu asko 2009ko aurrekontuetan sartzea aurreikusten dugu"**
**Oxel Erostarbe** > Elgetako alkatea

**"Inkestak egin eta herritarren iritzia jasotzea lehenengo pausua da, gero foroak edo eztabaida guneak sortuko ditugu"**
**Oxel Erostarbe** > Elgetako alkatea

**2009KO AURREKONTUEI BEGIRA**

Elgetarrek adierazitako kezkei eta beharrei dagokienez, Oxel Erostarbek esan digu, horietako asko eguazten honetan bertan aurkeztuko diren 2009ko aurrekontuetan aurreikusita daudela. Hala nola, Asentzioko aparkalekua egitea, oinezkoen araudia finkatzea, kirol etxeko teilatua konpontzea, –hori Madrilgo Gobernuko diru laguntzekin egitea aurreikusten da– edota herriko aparkaleku faltari irtenbidea bilatzea. Gainontzeko gaiei, 2011ra bitarteko legealdian emango diete erantzuna.

Inkesten emaitzak positiboki baloratu ditu alkate Erostarbek, eta herritarren eta udalaren arteko "sintonia" nabarmendu ditu.



Atzo goizean, auzotarrak ermita inguruan. JOSETXO ARANTZABAL



Egubakoitzean 55 lagun inguru elkartu ziren herri afarian. JOSETXO ARANTZABAL



Txikitxu Arrostaitz dantza taldearen emanaldia. ARANTZAZU EZKIBEL

**ARRASATE** > MEATZERREKA AUZOA

# Dantza, Gorritiren animaliak eta gastronomia Meatzerrekan

Aurtengo San Baleixo jaietan eguraldia lagun izan dutela esan digu Inazio Zuazubizkar auzo-alkateak

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

Arrasateko Meatzerreka auzoan San Baleixo jaiak ospatu dituzte aste bukaeran. Neguko eguraldia izan duten arren, euria apenas egin du; horregatik, auzotarrak pozik azaldu dira. Jaiak ondo ospatzeko adin eta gustu guztietarako ekintzak egin dituzte. Jaiak hasteko, esaterako, auzo afaria egin zuten Mietzerreka elkartean. "Guztira 55 lagun elkartu ginen eta auzo giro aparta izan genuen", azaldu zigun Inazio Zuazubizkar Meatzerrekako auzo alkateak.

**GORRITI ETA ANIMALIAK**

Zapatu arratsaldean, 16:00etatik aurrera Gorriti eta bere animalien ikuskizuna izan zen elkartearen aurrealdean. "Pottokak, zezen txikiak eta beste hainbat animali ekarri ditu Gorritik", ezan zigun Zuazubizkarrek. Hara joandako lagunen iritziz, ekitaldi arrakastatsua izan zen Gorritirena. "Lagun asko etorri dira Gorriti ikustera; auzoko umeez gain, kalekoak ere etorri dira", gogoratu du Zuazubizkarrek.

17:00etan mus txapelketa jokatu zuten; esan behar da, bikote gutxik parte hartu zutela txapelketan. Bestalde, iluntzean Kuluxka taldearekin dantzaldia egon zen. Han ere, jende gutxi egon zen.

**MEZA ERMITAN**

Atzo, domeka, meza izan zuten auzotarrek San Baleixo ermitan. Ondoren, dantza saioa izan zuten elkartearen aurrealdean Txikitxu Arrostaitz taldearekin.



Irudian, istripua izan zuen autoa zein egoeratan geratu zen ikus daiteke . JOSETXO ARANTZABAL

**ARRASATE** > AUTO ISTRIPUA

# Bi zauritu Arrasaten gertatutako istripuan

Uribe auzoan gertatu zen ezbeharra goizean; gidariak positibo eman zuen alkoholemia frogan

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Atzo 11:00ak inguruan istripua gertatu zen Arrasateko Uribe auzoan. Arrasateko Udaltzaingoak adierazi duenez, Aramaioko norabidean zihoan Citroen Xsara autoa errepidetik atera eta kale horretan egiten dabiltzan lan batzuen kontra jo zuen. Ondorioz, gidaria, C.S.M inizialdun gizonezkoa, eta berarekin batera zihoan A.G. emakumezkoa, zauri arinekin Debagoieneko Ospitalera eraman zituzten. Zauriak osatu ondoren, alkoholemia froga egin zioten gidariari eta positibo eman zuen.

Alkohol tasa gainditzeaz gain, errepide eremu horretan autoak zeraman abaidura baimendutakoa baino handiagoa zen. Ondorioz, atxilotu egin zuten gidaria eta instrukzioa Bergarako epailearen esku gelditu da.

**ESKORIATZA** > ZUHAITZ EGUNA

# Ehun bat zuhaitz landatu zituzten Aingeru Guardan

## 2008an jaiotako umeen gurasoez gain, beste hainbat herritarrek ere esku hartu zuten

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA
Azkeneko urteotako ohiturari jarraituta, hainbat guraso eta umek zuhaitzak landatu zituzten domekan Aingeru Guarda ermitaren inguruan.

Ibarraundi museoak antolatzen du ekimen hori Zuhaitz Egunaren harira. Eskoriatzako ekimenak daukan bereizgarria da aurreko urtean udalerrian jaiotako gurasoei gonbidapena egiten dietela seme-alaba bakoitzeko zuhaitz bat landatzeko.

**INOIZ BAINO GEHIAGO**
2008an 37 ume jaio ziren udalerrian, eta horien gurasoek gutun bana jaso dute Ibarraundi museoaren eskutik. Horietariko gehienek bat egin zuten domekako hitzorduan, baina horiez gain, beste ume eta guraso asko gerturatu ziren museora. Hain zuzen ere, ekimena herritar gehiagori zabalik dago, eta guztiek izan zuten zuhaitz bana landatzeko aukera.

Hala, guztira, ehun bat zuhaitz landatu zituzten Aingeru Guarda ermita inguruan eguraldia lagun zutela; hain zuzen ere, ateri egon zen-eta. Landatutakoen artean aretxak, lizarrak, urkiak eta ereixak izan ziren.

Museoko arduradunek jakinarazi digute hemendik aurrera zuhaitzei ez dietela (umeen) izenik jarriko, zuhaitzei kalte ez egiteko.



Txikienak ere gogor aritu ziren. J.ARANTZABAL



Pedro Lasagabaster ere ibili zen landatzen. J.A.



IKER BARANDIARAN

**BERGARA** > IKASTAROA

## Teknologia berriekin, bizi

Azken aldian Bergarako San Joxepe erretiratuen elkartean hainbat ikastaro berezi egiten dabiltza. Berezi diogu, neurri baten ezohikoak direla dirudielako. Hala, egubakoitzean, sakelako telefonoak erabiltzen jakiteko ikastaroa izan zuten. Ikasleetako batzuk aitortu ziguten, zoritxarrez, halako erremintak erabiltzera behartuta sentitzen direla; eta hortaz, mezuak bidaltzen eta telefonoak berak ematen dituen aukerak aztertzen aurkitu genituen.

**ARRASATE** > ERRETIRATUAK ELKARRI LAGUNTZEA

# Nagusilan, erretiratuek erretiratuei elkar laguntzeko

## Bakarrik dauden edo konpainia beharra daukaten edadetuei laguntzen dieten Nagusilan elkarteko kideek; boluntarioak dira guztiak

**I.B.** > ARRASATE
Badira hainbat urte Nagusilan elkartea Donostialdean sortu zutela. Denbora librea duten eta sasoian dauden erretiratuek osatzen dute elkarte hori. Eta euren helburua da laguntasun premia duten edo beste modu baten esanda bakarrik dauden beste erretiratu batzuei konpainia egin edo moduren baten laguntzea.

Donostian eratzeaz gain, baina, gerora beste hainbat herritan ere sortu dituzte elkarte horiek. Inguruko ekimentsuenetako bat Arrasatekoa da. Horrek hainbat urte darama boluntarioak biltzen eta horiei eginkizunak ematen. Eginkizunak, gainera, ez dira falta. Bizi-itxaropena luzatzen doan heinean, gero eta gehiago dira gizartean dauden edadetuak, eta horren proportzioan, gehiago zelanbaiteko premiak dituztenak, hain zuzen ere.

**BERBA EGIN, JOLASTU**
Azken finean, Nagusilanek eman gura duena da konpainia pixka bat. Hala, hainbat lagunen etxetara joateaz gain, Arrasateko Iturbide zaharren egoitzara, Aita Mennira edota San Juan de Dios ospitalera joaten dira han daudenei arreta apur bat egitera.

Egubakoitzean, esaterako, Iturbide egoitzan aurkitu genituen, hango egoiliar batzuekin bingoan jolasten. Gustura ibili ziren, bai horixe!



Bingoan jolasten ederto pasatu zuten Iturbideko egoiliarrek. UBANE MADERA



Jose Mari Soroa gitarra-jotzailea Nagusilan elkarteko boluntarioa ere bada; eguenean izan zen Iturbide egoitzan. U.M.

**PERTSONA NAGUSIAK** > NAGUSILAN ELKARTEA

# Boluntario bila, San Juan de Dios ospitalerako

## Nagusilan elkartearen Arrasateko ordezkaritzan behar dituzte boluntarioak, gaixoak bisitatzeko

**UBANE MADERA** > ARRASATE
Beti hartzen dituzte ondo boluntarioak Nagusilan elkartean, zereginik ez zaie-eta falta. Baina oraingo honetan, eskaera berezia egin dute, Arrasateko taldean San Juan de Dios ospitaleko gaixoak bisitatzera joateko boluntarioak behar dituztelako. Halaxe kontatu du Tomas Atxak, Arrasateko taldearen ordezkariak. Hark jakinarazi du hilean behin joaten dela taldetxo bat San Juan de Diosera, eta horretarako behar dituztela boluntarioak.

Osterantzean, talde polita dago eratuta Arrasaten, 34 lagunekoa. "Hilero 400 bat ordu egiten ditugu; urtero 5.000 ordu. Boluntario gazteenak 60 urte ditu. Izan ere, gehienak erretiratuak gara. Baina gazteak ere izan daitezke boluntario, jakina. Eta beti behar izaten ditugu boluntario berriak, tarteka-tarteka batek baino gehiagok utzi egiten du-eta taldea; gaixotasunengatik…", azpimarratu du Atxak. Parte hartu gura duenak: 943 25 09 90; *nagusilan-arrasate@hotmail.com*.

**HIRU BISITA-GUNE**
Arrasaten hiru leku bisitatzen dituzte: "Talde bat, 12 lagunekoa, astero joaten da Aita Mennira; beste taldetxo bat goizero joaten da Iturbide egoitzara, gurpildun aulkietan daudenak mezetara eraman eta halakoetan laguntzera. Eta beste batzuk ere arratsaldero joaten dira, egoiliarrak paseoan atera, karta-jokora, bingora eta bestelakoetara. Bukatzeko, San Juan de Dios ospitaleko gaixoengana hilero joaten gara, merienda eramatera".

**ARRASATEN 7 URTE**
Nagusilan Gipuzkoan sortutako elkartea da, Donostian, 1995ean. Dena den, gaur egun Estatu osora zabaldu dute elkarte hori.

Arrasateko taldeari dagokionez, zazpi urteko ibilbidea dauka. Tomas Atxak berak eratu zuen, 2002an, sei lagunekin. Arrasate pasealekuan daukate egoitza eta hilero elkartzen dira.

**HAUTESKUNDEAK** > OSOKO BILKURA BEREZIA

# Ia 300 herritarren izenak zozketatuko dituzte gaur, hauteskunde egunean lan egin dezaten

## Ordenagailu programa berezia erabiltzen dute, hauteskunde mahaietan egongo direnen herritarren zozketa egiteko

**U.M.** > ARRASATE
Gaur, astelehena, osoko bilkura berezia egin behar dute, hauteskundeetan lan egitea tokatuko zaien herritarren izenak zozketatzeko, 12:00etan.

Arrasaten sei gune izango dira botoa emateko: erdialdean, Uarkape frontoian; Arrasate Herri Eskolan (Musakola); Santa Marinako liburutegian; Arrasate Herri Eskolan (Bedoñabe, San Andres); Arrasate Herri Eskolan (Erguin); eta Arizmendi ikastolan (Jokin Zaitegi gunea).

**GUZTIRA 33 MAHAI**
Sei gune horietan 33 hauteskunde mahai izango dira. Eta mahai bakoitzean presidente bana eta bi ordezko; lehen bokala eta beste bi ordezko eta bigarren bokala eta beste bi ordezko. Mahai bakoitzeko, beraz, bederatzi lagun. Eta Arrasateri dagokionez, guztira, 297 lagunen izenak zozkatuko dituzte.

**ERREKLAMAZIOAK BAZ-ETIK**
Zozketa egin eta gero, martxoaren 1ean lan egin ezin dutenek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte. Biztanleen Arreta Zerbitzuan egongo da beharrezko dokumentazioa horretarako. Hura bete egin behar da, eta hauteskunde egunean lan egin ezin denaren egiaztagiria eraman behar da BAZera; eta hori faxez bidaliko dute Bergarako epaitegira.

**BEHERAPENAK** > MERKEALDIEN AZOKA

# Merkemerkauaren egunak aldatuta, Aratusteengatik

## Otsailaren 21ean barik, martxoaren 7an eta 8an egingo dute aurtengo merkealdi azoka

**U.M.** > ARRASATE
Merkemerkauaren, Ibai Arte elkarteak antolatzen duen neguko merkealdien azokaren data aldatu egin behar izan dute.

Hasierako data ipini ostean konturatu ziren data horretan, otsailaren 21eko asteburuan, Aratusteak direla. Jakina, batetik, horrek zaildu egiten du bezeroak azokara joatea. Eta bestetik, Uarkapen Aratusteetako bazkaria egiten behar dute. "Bazkaria antolatzen dabiltzanak ahalegindu ziren beste lekuren bat aurkitzen, baina ez zuten ezer egokirik lortu", esan du Arantza Arantzabalek, Ibai Arteko presidenteak. Gaineratu du orduan pentsatu zutela martxoaren 1eko asteburua egokia zela euren azokarako. Baina, jakina, orduan hauteskundeak dira.

Martxoaren 14-15a eskaini zieten hurrengo; baina data hori beranduegi da neguko jantzien merkealdia egiteko. Horrenbestez, eta egutegian leku libre askoz gehiago ez dagoela ikusita, erabaki dute martxoaren 7an eta 8an egingo dutela Merkemerkaua.

**DESKONTU TXEKEA**
Bestalde, Ibai Artek gogora ekarri du Ibai Arte txartelaren erabiltzaileak hasi direla erosketen truke puntuak batzen: bost euroko, puntu bat. 200 puntu batzen dituenari 10 euroko deskontu txartela emango diote.



Bezeroak saltokiei begira, iazko Merkemerkaua azokan. U.M.

## oharrak

ERLIJIOA
**> Elkarte Belenista**
Arrasateko Elkarte Belenistak Siria eta Jordaniara bidaia antolatu gura du. Joateko interesa dutenei beharrezko informazioa emango diete martitzenetan, 19:30etik 20:30era, San Andresko parrokia zentroan (Bañez Doktorea kalean).

GAZTEAK
**> Udal Gazte Bulegoa**
Dantza afroamerikar eta bideoaren hastapen ikastaroak atzeratu egin dituztela jakinarazi dute Udal Gazte Bulegotik. Astebete geroago hasiko dira; datorren astean, beraz. Hori horrela, oraindik badago izena emateko aukera: 943 25 25 65 edo *gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net*.

ERRETIRATUAK
**> Abaroa**
Aratuste jaia egingo dute Abaroan otsailaren 17an. Bada, jai horretan parte hartu gura duenak gonbidapena eskuratu beharko du. Gaurtik, astelehena, otsailaren 10era bitartean, erretiratuen etxeko bulegoan, eguneratutako bazkide txartela aurkeztu ostean.

HAUTESKUNDEAK
**> Posta bidezko botoa: EA**
Eusko Alkartasunak gogora ekartzen du otsailaren 18ra arteko epea dagoela posta bidezko botoa tramitatzeko. Alkartetxean egin daiteke hori, astelehenetik eguenera, 19:00etatik 20:30era. Nortasun Agiria eraman beharra dago.

OSPAKIZUNAK
**Sagardotegira irteera**
Zahar Berri ekimenaren arduradunek Azpeitiko Añota sagardotegian afaria antolatu dute, otsailaren 13rako. Arrasatetik 19:30ean aterako da autobusa, Abaroa erretiratuen egoitza paretik. Izena emateko azkeneko eguna da otsailaren 7a. 28 euro da prezioa. "Giro jatorra" izango dela iragarri dute.

OHITURA ZAHARRAK
**> Auto-taxi lizentzia**
7 zenbakidun auto-taxi lizentzia eskuratzeko instantziak aurkezteko epea otsailaren 16an (barne) bukatuko da.

**Andoni Iñurritegi, Markel Altuna eta Jon Ugarte** > Aratusteetako komisiñue

# "Mozorrotzen ez bagara, hain jai alai eta koloretsua dena galdu egingo dugu"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

**Badatoz Aratusteak: Arrasaten otsailaren 21a izango da egun handia. Aratusteetako komisiñuek argi utzi du: *Mozorrotu ala hil!*; hori aukeratu duten leloa. Komisiñoko hiru kiderekin izan gara berbetan.**

**Zertan dira bereziak Aratusteak zuentzat ?**

Norberak bere buruari ezartzen dizkion hesiak apurtzeko balio dute. Umekeriak egitera ohituta ez dagoen jendea umekeriak egiten ikustea polita da oso.

**Zergatik hain lelo zuzena, *mozorrotu ala hil!*?**

Aratusteetan mozorrotzen ez bagara hain alaia eta koloretsua den jaia hil egingo da. Beste esanahi bat ere badu leloak: egun horretan mozorrotzen ez denak "hilik" dagoela adierazten du.

Hein batean Aratusteek inplikazio kolektiboa eskatzen dute, herrian eta herriarekin ospatzeko eguna da-eta. Azken finean, baina, norberaren borondatearen araberakoa da. Azken urteetan Aratuste-jaia galtzen hasia zen Arrasaten, hainbat arrazoi direla medio, eta jendeak mozorrotzeko ohitura galtzea zen arrazoietako bat. Horregatik erabaki zen orain hiru urte zapatuan ere Aratuste jaia egitea.

**"Umekeriak egitera ohituta ez dagoen jendea umekeriak egiten ikustea polita da oso"**

**Hortaz, Aratusteak martitzenean izatea ez zen lagungarri. Zergatik?**

Jende askok lan egin behar izaten du martitzen horretan eta oso gutxi izaten ziren mozorrotu eta kalera irteten zirenak. Pentsaezina da martitzen baten zapatuan egin daitezkeen ekintzak antolatzea.

**Nola erantzun zuen herriak?**

Azken hiru urteetan zapatuko jaian aspaldian egon ez den giroa egon da Arrasaten. Haur, gazte zein helduak inplikatu ziren, goizeko kalejira ezin koloretsuagoa izan zen. Hala, herriaren erantzuna txalotu nahi dugu.

Iaz 700 pertsona bildu ziren Uarkapeko bazkarian, ea aurten kopuru bera batzen dugun...

**Eta martitzenetan, zer?**

Egia da zertxobait behera egin duela martitzeneko giroak, baina logikoa da zapatuan egoten den giroa ikusita. Aratusteetako komisiñuek zapatuko ekintzak bakarrik antolatzen ditu; hori da gure apustua. Hala ere, erabat babesten dugu martitzeneko jaia.

**Ba al dago berritasunik aurtengo egitarauan?**

Berritasuna da txaranga bat beharrean bi txaranga egongo direla goizeko kalejiran. Iaz txaranga bakarra txiki geratu zen, kalejira oso jendetsua izan zeneta. Aurten zarata gehiago atera nahi dugu. Bestela, formatu bera mantenduko da: kalejirak, herri bazkaria Uarkapen, jolasak, sari banaketa eta berbena.

ZAPATUKO JAIA

## Herri bazkaria eta sari banaketa

Herri bazkaria Uarkapen egingo da azkenean. Izan ere, Ibai Artek egun horretan Merkemerkaua egin behar zuen arren, martxoak 7ra arte atzeratu dute. Komisiñuek txalotu gura du Ibai Arte eta Udalaren jarrera, bazkaria Uarkapen egiten uzteagatik. Sarrerak laster jarriko dira salgai herriko tabernetan.

Bestalde, iaz bezala, sari banaketa egongo dela iragarri du komisiñuek: koadrila onenari goma-aparreko sardina (iaz *Amaiurren gudariek* irabazi zuten); eta taberna (iaz Biona taberna) eta karroza (iaz piraten itsasontzia) onenari "zilarrezko" sardina. Sariak bazkariaren ostean emango dira.



Aratusteetako komisiñukoek mozorrotzeko agindua eman die arrasatearrei. J.B.

---

**AED** > 'XXII. ARRASATE LEHIAKETAK'

# Lanak bidaltzeko azken eguna, otsailaren 7a

Euskara gai hartuta, 17 urtetik beherakoek har dezakete parte; irabazleak apirilaren 23an emango dira ezagutzera

J.B. > ARRASATE

Aspaldi, orain 22 urte, antolatu zituen lehenengoz AEDk *Arrasate Lehiaketak*. Ordutik asko aldatu dira gauzak, baina helburuak bere horretan dirau: euskarazko sorkuntza bultzatzea. Lehiaketetan parte hartzeko azken eguna zapatua izango da, otsailaren 7a.

Ekimenak lau arlo ditu, hau da, lau lehiaketa ezberdin: ipuina, poesia, bertso paperak eta komikia. Arlo guztiek gai bera dute komunean, hots, euskara. Eta AEDk aukeratutako epaimahaikideek erabakiko dute zeintzuk izango diren finalistak –apirilaren 3an jakinaraziko dira–, eta irabazleak –apirilaren 23an egingo da sari banaketa ekitaldia–.

**EZIN ATAL BITARA AURKEZTU**

Interesatua ezin da arlo bat baino gehiagotan aurkeztu; hortaz, idazle gazteak arlo batean espezializatu beharko dira, lehiaketa honetan behintzat.

**LANAK NOLA ENTREGATU**

Entregatzen diren lan guztiak euskarazko obra originalak eta saritu, argitaratu edo emititu gabekoak izan behar dira.

Idazlan guztiek honako ezaugarri hauek bete beharko dituzte: hiru kopia, tarte bikoitzeko testua eta orrialde bakar batetik ordenadorez idatzita. Gainera, gutunazal itxi bat aurkeztu beharko da, bertan leloa –lelo bat aukeratu behar da–, jaiotza urtea eta arloa zehaztuz. Barruan, berriz, honako hau: egilearen izen abizenak, helbidea, ikastetxea eta telefono zenbakia. Idazlanak AEDren egoitzara bidali behar dira.

## Lanek bete beharrekoak eta sariak

**IPUINA**

| Jaiotze data | Luzera | 1. Saria/2.Saria |
|---|---|---|
| 1996an edo ostean jaioak | 2-4 orrialde | 50 euro/25 euro |
| 1995ean jaioak | 2-4 orrialde | 60 euro/60 euro |
| 1993an edo 1994an jaioak | 3-5 orrialde | 90 euro/40 euro |
| 1992 edo aurretik jaioak | 4-7 orrialde | 150 euro/60 euro |

**POESIA** — KONPOSIZIO ETA ERRIMA LIBREAK

| Jaiotze data | Luzera | 1. Saria/2.Saria |
|---|---|---|
| 1995ean edo ostean jaioak | 30-60 lerro | 60 euro/30 euro |
| 1993an edo 1994an jaioak | 40-80 lerro | 90 euro/40 euro |
| 1992an edo aurretik jaioak | 100-200 lerro | 150 euro/60 euro |

**BERTSO PAPERAK** — DOINU ETA NEURRI LIBREAK

| Jaiotze data | Luzera | 1. Saria/2.Saria |
|---|---|---|
| 1995ean edo ostean jaioak | 3 bertso | 60 euro/30 euro |
| 1993an edo 1994an jaioak | 6 bertso | 90 euro/40 euro |
| 1992an edo aurretik jaioak | 4-7 orrialde | 150 euro/60 euro |

**KOMIKIA** — DIN A4 FORMATUAN

| Jaiotze data | Luzera | 1. Saria/2.Saria |
|---|---|---|
| 1995ean edo ostean jaioak | 4-6 orrialde | 90 euro/30 euro |
| 1993an edo 1994an jaioak | 4-6 orrialde | 120 euro/60 euro |
| 1992an edo aurretik jaioak | 4-6 orrialde | 180 euro/90 euro |

---

> EB-ZUTIK

### Gizarte larrialdietarako laguntza handiagoak

Gizarte larrialdietarako laguntzak handitu egingo ditu Arrasateko Udalak. EB-Zutik koalizioak egin zuen laguntzak handitzeko eskaera hori, eta joan den egubakoitzean –hau da, urtarrilaren 30ean– Gizarte Ongizate Sailean gai hori aztertu ostean, baiezkoa eman zioten.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak behar berezi batzuetarako ematen dituzten dirulaguntzak dira. Dirulaguntza horien zatirik handiena, normalean, errenta gastuei aurre egiteko ematen da. Hala eta guztiz ere, bestelako kontzeptu batzuetarako ere erabilgarriak izan daitezke aipatutako diru-laguntzak: ur, argindar, zabor eta halako zergak ordaintzeko, oinarrizko beharretarako eta abar. Beraz, urtarrilaren 30ean onartutakoari esker, aipatutako azken kontzeptu horien gastuendako laguntzak dira handituko dituztenak.



Irudian, Asfaltos Urretxu enpresaren hondeatzeko makina Santa Ana parkearen sarreran. MONIKA BELASTEGI

**AZPIEGITURAK** > EGOKITZE LANAK

# Hasi dira Santa Ana parkeko bidetxoa konpontzeko lanak

Parkeko bidetxoa asfaltatu egingo dute, eserleku eta argi berriak jarriko dituzte eta iturria ere konponduko dute

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Santa Ana parkeko bidetxoa konpontzen dihardute. Duela hamar bat egun hasi ziren konponketa lanok egiten eta aste honen bukaera aldera edo datorren aste hasieran bukatu nahiko lituzketela azaldu du lanak egiten ari den Asfaltos Urretxuko ordezkariak: "Eguraldi oso txarra egiten ari da eta horrek ez digu lagatzen nahi dugun abiaduran lan egitea. Duela bi aste, egun bitan baino ez ginen lanean egon eta pasa berri den astea ere oso euritsua izan da. Berez egun gutxiko lana dena asko luzatzen dabil".

**EGOKITZE LANAK**

Santa Ana parkeak gaur egun duen bidetxoa konpontzea da lanon oinarria. Herritar ugarik eskertuko dute hori, kultura etxera sartzeko bide bakarra baita, eta, batik bat, euria egiten duenean lokaztu egiten delako bidea.

Udaleko Ingurumen batzordearen irizpideak aintzat hartuta egiten dihardute egokitzapenok. Sarrera nagusian, parkera sartzeko dagoen koskatxoaren maila jaitsi egingo dute eta bidetxoa asfaltatu –ia bi metro eta erdiko zabalerarekin–, Santa Ana ermita osteraino. Bestalde, kultura etxerako sarrerari dagokionez, lauzak jarriko dituzte zoruan; sarrera pareko harrizko hormatxoa konpondu egingo dute eta hormaren bukaeran dagoen iturria ere bai.

Horrez guztiaz gain, eserleku berriak ere jarriko dituzte parkean barrena, lehen zeudenak ordezkatuz, eta eserlekuon ondoan argiak ere jarriko dituzte.

**ASFALTATZE LANAK**

Bestelako asfaltatze lanak ere egin ditu asteon Asfaltos Urretxu enpresak. Hain justu ere, Miguel Altuna institutua inguratzen duen errepidea asfaltatu dute.

## Egubakoitzetik ikusgai daude argazkiak

Egubakoitzean inauguratu zuten Aroztegi aretoan argazki erakusketa Benito Cantero eta Agustin Gurrutxaga herriko argazkilariek eta lehenengo aste bukaeran jende asko hurbildu da argazkiok ikustera. *20 urte hegaletan* du izena erakusketak eta tamaina handiko 46 argazkik osatzen dute. Ikusgai egongo da otsailaren 15era arte, honako ordutegian: martitzenetik egubakoitzera, 18:00-20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeketan, 12:00-14:00.



JOSETXO ARANTZABAL

**GAZTEAK** > AISIALDIA

# Umeendako ur jolasak egongo dira hilean behin

Agorrosin Ekintza Gunean izango dira, zapatu arratsaldeetan, 8 eta 14 urte artekoendako

**M.B.** > BERGARA

Udaleko Kirol Zerbitzuak haur eta gaztetxoendako ur jolasak antolatuko ditu hilean behin. Agorrosin Ekintza Gunean izango dira ur jolasok zapatu arratsaldeetan, 17:00-19:00 ordutegian.

Eta ur jolasen egutegia honakoa da: otsailak 7, martxoak 7, apirilak 4, maiatzak 16 eta ekainak 13.

Bi begiralek jardungo dute ekintzak antolatzen eta dinamizatzen, eta antolatuko dituzten eremuak hauek izango dira: jauzietarako eremua, flotagailuendako eremua eta txirrista puzgarri handiarendako eremua, hain zuzen.

8 eta 14 urte arteko gaztetxoendako dira, eta igerileku handian aritzeko moduko autonomia osoa izan beharko da.



Txirrista puzgarri handia egongo da igerilekuan, besteak beste. GOIENKARIA

> ARATUSTEAK

### Bihar, martitzena, bukatuko da Aratusteetarako kartel lehiaketarako lanak aurkezteko epea

Lehiaketan parte har dezake Bergaran bizi den edo erroldatuta dagoen edonork. Kartelek ondorengo testua eroan beharko dute ezinbestean: *Aratusteak 2009, Bergara*. Bestetik, kolore eta teknika libreak izango dira eta 40x60 neurritako kartoizko oinarri baten gainean aurkeztu beharko dira. Horrez gain, euskarri informatikoan ere aurkeztu beharko da. Lanak eroan beharko dira kultura etxera, martitzeneko 13:00ak aurretik.

> UDALA

### Landa-lurren katastroaren gaineko argibideetarako Udalera jo daiteke, behin ordua hartu eta gero

Gipuzkoako Foru Aldundia landa-lurren katastroa eguneratzen dabil, eta, hori dela eta, idatzi bat bidali die herriko landa-lurren jabe guztiei lursail horien berri emateko.

Idatzia jaso dutenek Udalera jo dezakete idatzian agertzen diren datuak aztertu ondoren, argibideren bat behar izanez gero edo zerbaitekin konforme egon ezean.

Horretarako, telefono honetara deitu eta kontsultarako ordua eskatu behar dute: 943 77 91 85. Ordua hartzea ezinbestekoa da eta udaletxera eskritura eraman behar da.

> IRTEERA

### Sagardotegira irteera antolatu dute Zahar Berri eta Berbetan egitasmoek, eta izenematea zabalik dago

Zahar Berri eta Berbetan egitasmoek, Erdu AEK euskaltegiak eta Arrasate eta Bergarako udal euskaltegiek sagardotegira irteera antolatu dute. Iaz bezala Azpeitiko Añota sagardotegira joango dira, otsailaren 13an. Nahi duten guztiak daude gonbidatuta sagardotegira, eta irteeraren helburuak dira, besteak beste, giro jatorrean eta euskara ahoan dutela jendea ezagutzea. Hala, antolatzaileek sagardotegira joatera animatu nahi dituzte herritarrak.

Izenematea da otsailaren 7ra arte antolatzaileen egoitzetan eta prezioa, 28 euro. Irteera egunean honako lekuetan geratuko da autobusa: Arrasaten Abaroan, 19:00etan; eta Bergaran autobus geltokian, 19:15ean.

AZPIEGITURAK > UDAL PILOTALKEUAK

# Angiozar, Zabalotegi eta Elorregiko pilotalekuen erabilera debekatu egin dute

Eraikinon egoera dela eta Udalak ezin du erabiltzaileen segurtasuna bermatu

Instalaziook konpondu bitartean erabiltzaileei ez zaie alokairurik kobratuko



Pilotalekuak itxita daudela adierazteko seinaleak jarri ditu Udalak. Irudian, Elorregiko pilotalekua. JOSETXO ARANTZABAL

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Herriko hiru pilotalekuren erabilera debekatu du Udalak, erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko asmoz. Hain justu ere, Angiozarko, Zabalotegiko eta Elorregiko pilotalekuak itxi dituzte.

Udaleko Kirol Zerbitzuko iturrien esanetan, "euriteek eta eraikinen egoerak ezin dute bermatu segurtasuna eta kalitatezko kirol praktika". Hori horrela, ixtea erabaki dute.

**KONPONDU BEHARREKOAK**

Angiozarko pilotalekuari dagokionez, herdoilduta dagoen ubide bati zuloak tapatzeko beirazuntza jarri eta pasta tratamendu berezia egin behar zaio. Lanak dagoeneko aginduta daude, baina, horretarako, ubideak lehor egon behar du.

Zabalotegiko pilotalekuari dagokionez, itoginak konpondu dituzten arren, gehiegizko hezetasunak arriskutsu bihurtzen du pilotalekua. Hori horrela izanik eta neurri zuzentzaileak hartu bitartean, debekatu egin dute pilotan edo bestelako kirol jarduerarik egitea.

Elorregiko pilotalekuaren kasuan, itogina agertu da elektrizitate koadro baten ondoan.

Hala, itogina zergatik agertu den aztertu eta konponbidea aurkitu bitartean egongo da itxita pilotalekua.

Udaleko iturriek azaldu dutenez, ez dute uste denbora luzez egongo direnik pilotalekuak itxita. Bien bitartean, pilotalekuok jokorako alokatuta dituzten herritarrei ez zaizkie alokairu orduak kobratuko.

AZPIEGITURAK > IPINTZA FUTBOL ZELAIA

# Ipintzako futbol zelaia ureztatzeko umeen igerilekuko ura berrerabiltzea erabaki dute

Astero 135.000 litro ur inguru aurreztuko dute igerilekuko ura berrerabilita; ekimen aitzindaria da Debagoienean



Irailean ireki zuten Ipintza futbol zelaia. GOIENKARIA

**M.B.** > BERGARA

Ipintza belar artifizialeko futbol zelai berria ureztatzeko, Agorrosin Ekintza Guneko igerileku txikiko ura berrerabiliko dute aurrerantzean.

Astegunetan, egunean behin ureztatzen dute futbol zelaia eta aste bukaeretan, egunean birritan. Ureztatze bakoitzeko 15.000 litro ur inguru erabiltzen dituztela aurreratu dute Kirol Zerbitzutik; hortaz, astero, 135.0000 litro ur inguru aurreratuko dutela azpimarratu dute.

**MANTENU TALDEA**

Ideiaren sortzailea Agorrosingo mantenu taldea dela aurreratu dute Kirol Zerbitzutik. Inguruko herrietan ez dago halakorik; hala, ideia izateaz gainera, igerilekuko ura belar artifizialarendako balekoa den ala ez ere aztertu behar izan dute; baita instalazio berria egin ere.

JAIAK

# Meza nagusia bihar San Blasen

**M.B.** > BERGARA

Bihar, martitzena, San Blas eguna da. Hala, ohiturari jarraituz, 11:00etan meza nagusia izango da Murinondon eta opilak bedeinkatuko dituzte. Salda eta txorizoa ere egongo dira elkartean, nahi duten guztiendako.

Auzoko jaiekin otsailaren 6an jarraituko dute: auzo afaria egingo dute Murinondon eta Miren eta Agurtzane trikitilariek dantzarako doinuak joko dituzte. Zapatuan, 21. San Blas saria mus txapelketa jokatuko dute, 16:00etan. Izenematea hasiko da 15:30ean eta bikote bakoitzak 15 euro ordaindu beharko ditu. Domekan, Iñaki eta Inaxio Perurena aita-semeek erakustaldia egingo dute.

## oharrak

UDAL DIRU BILKETA

**> Merkatu eta merkatu txikiko tasak ordaintzeko epea**

Otsailaren 27an bukatuko da borondatezko epea. Ordainketa egin daiteke udaletxeko diru bilketa zerbitzuan. Informazio gehiago *www.bergara.net* helbidean.

ERRETIRATUAK

**> San Joxepek urteko batzarra egingo du otsailaren 18an**

Lehenengo deialdia 16:30ean izango da eta bigarrena 17:00etan. Besteak beste, 2009rako asmoen berri emango dute eta zuzendaritzako lau kide berri izendatuko dituzte. Horretarako, hauteskunde prozesua abiarazi dute: otsailaren 6ra arte dago epea hautagaiak aurkezteko eta 7an jakinarazi egingo dituzte.

BATZARRA

**> Jai batzordeak batzarra egingo du Mendekosteen gainean**

Bihar, martitzena, egingo du batzarra Jai batzordeak. Kultura etxean izango da, 20:00etan. Gai nagusia izango dira Mendekoste jaiak. Hori horrela, Kultura Sailak gogora ekartzen die herritarrei batzordeok irekiak direla eta dei egiten die interesa dutenei parte hartzera eta Mendekoste jaietarako ekarpenak egitera.

BATZARRA

**> LHko ikastetxeek batzar informatiboak deitu dituzte**

Batzarra egiteko egun eta ordu bera iragarri zuten Mariaren Lagundia, Aranzadi eta San Martin ikastetxeek: otsailaren 3a, 18:00etan. Horrek sor ditzakeen arazoak saihesteko data berriak adostu dituzte: Mariaren Lagundian, otsailaren 3an, 18:00etan; San Martinen, otsailaren 4an, 18:30ean; eta Aranzadin, otsailaren 5ean, 18:30ean.

HAUTESKUNDEAK

**> Postaz bozkatzeko aukera Sozialisten bulegoan**

Bidekurutzeta 23an duten bulegoa egunero egongo da zabalik, 11:00-12:30 eta 16:00-20:00 ordutegian.

HAUTESKUNDEAK

**> Postaz bozkatzeko bulegoa jarri du EAJ alderdiak**

Batzokiko obrak direlaeta, bulegoa Bidekurutzeta kalean, Carmen Garate poltsa denda zegoen tokian egokitu dute. Ordutegia izango da: 11:00-13:00 eta 18:30-20:30. Informazio gehiago 943764700 zenbakian. Eskaerak egiteko azken eguna otsailaren 19a da.

UDALAREN EGUTEGIAK

**> Udalaren egutegiak eskuratzeko aukera dago**

Herri osoan banatu diren arren, norbaitek ale gehiago nahi izanez gero Udaltzaingoan eskura ditzake.

**ZERBITZUAK** > FAKTURAZIOA

# Hiru hilean behin bidaliko dituzte uraren fakturak

Ur erabiltzaileen kudeatzaile gisa, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak bidaliko ditu fakturak aurrerantzean

Hurrengo fakturetan tarifa berriak eta bonifikazioak aplikatuko dituzte

**MMIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Ur zerbitzuaren kudeaketa osoa Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku utzi du udalak hurrengo hamar urteetarako; baina bi aldeak ados egonez gero, urterik urte luzatuko dute akordioa. Horren harira, hainbat aldaketa egingo dituzte fakturazioan eta kobratu beharreko tarifetan. Alde batetik, fakturak hiru hilean behin egingo dituzte.

Beste alde batetik, prezio berriak kobratuko dituzte. Kontsortzioaren tarifak Udalarenak baino garestiagoak dira (0,04 euro garestituko da metro kubiko bakoitzeko). Dena den, faktura gehienak merkeagoak izango dira, eta arrazoia hauxe da: aurrerantzean, kontsumitutako ura bakarrik kobratuko dute. Horregatik guztiagatik, herrian dauden 4.823 ordainagirietatik 3.476k merkeago izango dute faktura. Orain arte, kontsumitu ala ez, 20 metro kubikori zegokion tarifa minimoa kobratzen zuten.

**BONIFIKAZIOAK KALTETUENDAKO**

Bestalde, herriko 1.356 abonaturi garestitu egingo zaie ur kontsumoaren faktura. Halako kasuetarako dirulaguntza sistema berezia aplikatuko du Udalak (ikus ondoko taula). Laguntza sei urterako izango da.

## Bonifikazioak hiru hilean behin

**URKULUKO URA**

| | Kontsumoa | Laguntza |
|---|---|---|
| Etxeko kontsumoa | 25-45 metro kubiko artean | 2,5 euro |
| Merkataritza | 25 metro kubiko edo gehiago | 15 euro |
| Industria | 25 metro kubiko edo gehiago | 10 euro |

**TOKILLOKO URA**

| | Kontsumoa | Laguntza |
|---|---|---|
| Etxeko kontsumoa | 25 metro kubiko edo gehiago | 15 euro |
| Merkataritza | 15 metro kudbiko edo gehiago | 15 euro |
| Industria | - | - |



JOSETXO ARANTZABAL

## Ikastolako eraikin berriaren inaugurazioa

Egubakoitzean inauguratu zuten Txantxiku ikastolako eraikin berria. Ikastolako arduradunekin batera ekitaldian egon ziren Oñatiko alkate Lourdes Idoiaga eta Mikel Iturrospe eta Angel Biain zinegotziak; Eusko Jaurlaritzako Ikuskaritzako Jose Mari Guillen; Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko zuzendari Iñaki Lekuona eta idazkari Arantxa Manterola; Partaideko zuzendari Jose Luis Sukia; Erkidegoko?? Imanol Igeregi eta Debagoieneko hainbat ikastolatako ordezkariak. Gainera, ikastolako guraso eta ikasleek parte hartu zuten. Inaugurazio ekitaldia bukatu ondoren, guztiek gela berriak bisitatu zituzten. Eraikinak hiru solairu ditu, eta sei gela berri. Lanok aprobetxatuz jolaslekuaren lurzorua berritu egin dute.

> ZERBITZUAK

### Oñati eta Arantzazu arteko autobusa, domeka eta jaiegunetan

Oñati eta Arantzazu arteko autobus zerbitzua martxan egongo da urteko domeka eta jaiegun guztietan. Lehen autobusa 07:30ean irtengo da Oñatitik, eta azkena 20:00etan Arantzazutik. Ordu erdian behin irtengo dira autobusak Oñatitik eta Arantzazutik. Txartelak 0,60 euro balio du. Iaz, 8.707 erabiltzailek hartu zuten autobusa.

> LANPOSTUA

### Udaltzain lanpostuak eskuratzeko izenematea gaur bukatzen da

Udalak sei udaltzain kontratatzeko egindako deialdiko izenematea gaur bukatzen da. Eskaerak udal bulegoetan aurkeztu behar dira. Hautagaiek bost proba egin beharko dituzte: teorikoa, euskarazko proba, gaitasun fisikoaren gaineko proba, ariketa praktikoa eta jarrera proba. Gainera, hautagaien esperientzia kontuan hartuko dute.

> HAUTESKUNDEAK

### Posta bidez botoa emateko azken eguna hilaren 19a da

Martxoaren 1eko hauteskundeetarako botoa postaz eman gura dutenek hilaren 19ra arteko epea dute. EAJk botoa postaz emateko tramiteak egiten dihardu. Hain zuzen ere, Foru plazako 9. zenbakiko bulegoa egunero zabalduko dute, 19:30etik 21:00etara. Era berean, interesatuek 943 78 01 17 telefonora dei dezakete informazioa eskatzeko.

> KIROLA

### Oñatiko arkulariek lan ona egin zuten Euskadiko txapelketan

Txantxiku Arkulariak taldeko kideek lan ona egin zuten Lazkaoko Euskadiko txapelketan. Arku tradizional biribilduaren beteranoan mailan bigarren sailkatu zen Jose Luis Fernandez de Arroiabe. Senior mailetan hirugarren sailkatu ziren Gorka Bikuña eta Oihana Martzan. Rafael Ugartek, Iñaki Odriozolak eta Koldo Elortzak ere parte hartu zuten.

## oharrak

EKITALDIAK

**> Errekalde Herri Eskolak, hamabostaldi kulturala**

Mugikortasunaren gaia lantzeko hainbat ekitaldi egingo dituzte. Gaurtik otsailaren 13ra *Tren biziduna* egingo dute; alegia, eskolako ikasleak elkarrekin eta oinez joango dira eskolara.

Bestalde, bihar, Santa Agedako koplak abestera irtengo dira, 18:00etan. Eguenean, Jon Arretxek hitzaldia egingo du kultura etxean, 18:00etan.

EKITALDIAK

**> Santa Ageda koplak Elkar Hezi ikastetxean**

Eguaztenean Elkar Heziko Lehen Hezkuntzako ikasleek koplak kantatuko dituzte kalerik kale, 10:30ean.

DEIALDIA

**> Ate irekiak Zuazola institutuan**

Bihar, ate irekien eguna egingo dute Zuazola-Larraña institutuan, 18:00etan.

ERRETIRATUAK

**> Korrika batzordeak herri batzarra egingo du**

Egubakoitzean bilduko dira, kultura etxean, 19:00etan; besteak beste, Korrika 16k Oñatin egingo dituen kilometroen antolaketaz jardungo dute.

HITZALDIA

**> Hitzaldia egingo dute ikastolan**

Izar Mendia psikologoak hitzaldia egingo du bihar, 18:30ean, ikastolako aretoan.

ERAKUSKETA

**> Corrado Massaciren txotxongilo erakusketa**

*Txotxongiloen mundu bat* delako erakusketa ikusgai dago kultura etxean, otsailaren 15era arte, 18:30etik 20:30era.



Aretxabaletako iazko Santa Ageda neska-mutilak plazan dantzan. MIRARI ALTUBE

**ARETXABALETA-ESKORIATZA** > SANTA AGEDA EGUNA

# Urteroko ohiturari jarraituz, kintoak kalera irtengo dira kantuan

Aretxabaletan 1980an jaiotakoak ibiliko dira baserrietan eta herriko kaleetan eskean; Eskoriatzan, berriz, urtebete gutxiago dutenak

**MIRIAN BITERI** > ARETXABALETA

Santa Ageda doinuak entzungo dira datozen egunotan Aretxabaletan eta Eskoriatzan. Horrekin, 251. urteko otsailaren 5ean bularrak moztu zizkioten emakume siziliarraren historia gogora ekarriko da kopla eta bertsoen bidez. Aurten, 1980. urtean jaiotakoak aterako dira Aretxabaletan eta 1981ekoak Eskoriatzan.

Ospakizunak bihar, martitzena, hasiko dira. Eskoriatzako hamahiru neska-mutil herriko lantegietan eta ikastetxeetan ibiliko dira, goiz partean, kantuan eta eskean.

**SANTA AGEDA BEZPERA**

Eguaztenean, Santa Ageda bezperan, bi herriotako kintoek baserririk baserri abestuko dute, nor bere aldetik. Egun osoa emango dute baserrietako produktu freskoak biltzen; besteak beste, arrautzak eta txorizoak. Saskiak ez dira beteko diren bakarrak; poltsikoak ere antzera egongo dira.

Aretxabaletan, gainera, Abesbatzak eta Leizarra Musika Eskolako Haur Abesbatzak eta trikitilariek kaleak alaituko dituzte, Santa Agedari koplak eta bertsoak kantatuz. Ekitaldia 18:00etan abiatuko da Musika Eskolatik.

Eguenean, Santa Ageda egunean, berriz, goizean bi herrietako kaleetan eskatuko dute eta 19:00etan kinto talde bakoitza bere herriko plazan bilduko da, dantza egiteko. Eskoriatzan, neskek kinto jantzita dantzatuko dute lehen aldiz; iaz, baserritar joan ziren. Domekan, hilak 8, dantzaldia errepikatuko dute.

**ARETXABALETA** > INGURUMENA

# AP-1 autobideko lanak jarraitzeko teknikaria dago

Autobideko inguruneak behar bezala uzten dituztela zaindu behar du

**M.B.** > ARETXABALETA

Aretxabaletako Hirigintza Sailak teknikari berria du urtarrilaren 7a ezkero. Garazi Etxeberriak AP-1 autobideko lanak jarraituko ditu. Inguruneak berreskuratzeko egin behar diren errekuperazio lanak modu egokian egiten direla zaindu beharko du.

Etxeberriak gogorarazi du autobideko trazatua oso aurreratuta dagoela eta Diputazioak laster zabaltzeko asmoa duela. Esku artean dituen aurreikuspenen arabera, Aste Santurako irekita egon beharko luke horrek. Orain, baina, inguruneak berreskuratu egin behar dira. Besteak beste, tunel eta zubi inguruneak txukundu, lurrak toki egokietara eraman eta bide bazterrean zuhaixkak eta zuhaitzak landatu. Dagoeneko hasi dira horretan.

Teknikariaren esanetan, "obra zuzendaritzak zehazten ditu lan horietan erabili beharreko teknikak eta prozesua. Nik horren gaineko jarraipena egiten dut". Horren harira, aipatu du lan horiek autobidea zabaldu ostean egin daitezkeela: "Lanen jarraipena ez da amaitzen zabaltzean. Lan asko egin behar da ondoren ere".

Bestalde, Izurietako tunelean izandako lur-jausiaren gainean ere badu zer esan: "Badakit obra zuzendaritza horrekin dabilela". Zereginen artean kaltetuekin biltzea ere badago.

> ARETXABALETA

### Aurrekontuaren gainean jardungo du udalbatzak gaur, astelehena, egingo duen osoko bilkuran

Gaur, astelehena, ezohiko osoko bilkura egingo dute osoko bilkuren aretoan, 18:00etan. Hain zuzen, aurtengo aurrekontuaz jarduteaz gain, martxoaren 1eko hauteskundeetan mahaietan egon behar duten kideen zozketa egingo dute batzarrean.

Horretaz aparte, hainbat mozio landuko dituzte: EAren giza eskubideen gainekoa, garapen ekonomikoari eta enpleguari nahiz Batasuneko kideen kartzelaratzeari buruzkoak eta EAJk eta PSEk Copreciren gainean aurkeztutakoa.

> ARETXABALETA

### Gizarte Zerbitzuen lege berria azaltzeko, Ezker Batuak berbaldia antolatu du eguazten honetan

Gizarte Zerbitzuen lege berriaren helburua integrazio soziala, parte-hartzea eta norbanakoaren autonomia bermatuko dituen sare publikoa izatea da.

Lege berri horrek ekarriko dituen aldaketak herritarrei azaltzeko, Ezker Batuak hitzaldia egingo du eguaztenean, otsailaren lauan, 18:30ean, Udaletxeko ganbaran. Bertan, Gizarte Zerbitzuetako Sailburuorde Fernando Consuegra ere izango da.

**ESKORIATZA**> HAURRAK

# Herriko ikastetxeetako umeei emango zaie Pirritx eta Porrotxen sarrera erosteko aukera

**M.B.** > ESKORIATZA

Azaroan egin ohi den Pirritx eta Porrotx pailazoen ikuskizuna klasiko bihurtu da Eskoriatzan. Debagoieneko gainontzeko herrietan gertatzen den moduan, arrakasta itzela duen emanaldia da hori. Horren harira, baina, urtero eztabaida bera pizten da herrian: Eskoriatzako ume asko pailazoak ikusi ahal izateko sarrera barik geratzen direla, hain zuzen ere. Horrek gurasoen haserrea pizten du.

Luis Ezeiza ikastetxeko eta Arizmendiko Jose Arana guneko guraso elkarteak dira, Udalarekin batera, ikuskizun hori antolatzen dutenak.

**1.500 SARRERA, ORDU ETA ERDIAN**

Joan den azaroaren 29an, Pirritx, Porrotx eta Marimotots-ek *Piratak* izeneko azken lana aurkeztu zuten Eskoriatzako kiroldegian. Guztira, 1.500 sarrera jarri zituzten salgai, bost euroren truke; eta ordu eta erdian guztiak saldu ziren herriko dendetan eta kiroldegian. Saltzaileek jakinarazi zutenez, erosleen artean inguruko herrietako jende asko zegoen.

Bada, egoera horri buelta emateko eta herriko ume txikiek sarrera lor dezaten, pailazoek hurrengo ikuskizuna aurkezten dutenean sarrera salmenta beste modu batean egitekotan geratu dira antolatzaileak.

Lehenengo, herriko ikastetxeetako haurrei emango zaie emanaldi horretarako sarrera erosteko aukera eta ondoren, gelditzen diren sarrerak ohiko moduan jarriko dira salgai, erosi gura duten guztiendako.

**KEXUEI ERANTZUTEKO NEURRIA**

Antolatzaileen esanetan, modu horretan, egon diren kexuei erantzun gura zaie eta hartutako neurri horrekin herriko haurrek Pirritx, Porrotx eta Marimotots zuzenean ikusteko izaten duten ilusioari erantzutea espero dute.

> ESKORIATZA

### Hauteskunde mahaietako kideak aukeratuko dituzte

Gaur, astelehena, ezohiko osoko bilkura egingo dute udaletxeko bilkuren aretoan, 18:00etan. Eta hiru gai landuko dira: lehenik eta behin, martxoaren 1eko hauteskunde mahaietako kideak hautatzeko zozketa egingo dute.

Jarraian, zirkulazio arloan egiten diren lege-hausteak arautzen dituen ordenantza aldatu egingo da; azkenik, kirol instalazioen eta zerbitzuen erabilera arautzen duen ordenantza ere aldatzea proposatuko dute. Esan bezala, 17:30ean izango da osoko bilkura.



Spinning bizikleta berriekin martitzenean emango diote hasiera ikastaroari. L.Z.

ELGETA > KIROLA

# Kiroldegia berritzea da herritarren eskaera

'Elgeta Danon Artian' ekimenaren baitan egindako inkestaren emaitzek horrela agertzen dute

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Herritarrek kezka askoren berri eman diote Udalari 'Elgeta Danon Artian' ekimenaren baitan egindako inkestaren bitartez.

Kirol kontuei dagokienez herrian kirola bultzatzea, kirol ekintzak areagotzea eta kirol instalazioak hobetzea nabarmendu diren eskaerak dira. Inkesta bete duten herritarren %22,8ak lehentasunezkotzat jo dute kiroldegia egitea. "Garrantzi handiko erabakia" dela agertu dute, gainera. Batek baino gehiagok igerilekua egitearen beharra ere aipatu dute.

Herritarrek Udalak egindako galderak erantzuteaz gain proposamenak ere egin dituzte. Kirol ekintzak bultzatzeko eskaerarekin batera antzinako Ozkarbi elkartearen mendi ibilbideen moduko irteerak bultzatzea proposatu dute.

### SPINNING IKASTAROA MARTXAN

Udal kirol eskaintza zabaldu eta hobetzeko helburuarekin spinning ikastaroaren aldeko apustua egin du Udalak. Aurreko astean iritsi dira Elgetara Udalak erosi berri dituen spinning bizikleta berriak baita gimnasiorako makinak ere.Hamabi bizikleta eta hiru makina erosi ditu Udalak 6.000 euroko inbertsioa eginez.

Spinning ikastaroa dagoeneko martxan da. Bihar, martitzena emango diote hasiera eta astean bitan –martitzen eta eguenetan– elkartuko dira interesatuak monitore baten gidaritzapean spinning saioak egiteko. Lehenengo bi asteetan saio horietan doan parte hartzeko aukera egongo da. Horretarako, baina, ezinbestekoa izango da udaletxean aurretik izena ematea. Eskaria handia izanez gero Udalak ez du bigarren ikastaro bat antolatzeko aukera baztertzen.

LEINTZ GATZAGA > AISIALDIA

# Zuzendaritza berritu du Gurel guraso elkarteak

Dorleta Elkorobarrutia eta Bea Alvarez dira kide berriak; gainera, Inauteri-zapatuko egitaraua gertatzen hasi da Gurel

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Gatzagako guraso elkarteak zuzendaritza batzordea berritu du. Batzordean bi urte egin dituzten Eguzkiñe Alberdik eta Ainara Zubillagak agur esan zuten eta haien ordez beste bi hautatu zituzten: Dorleta Elkorobarrutia eta Bea Alvarez.

Kide berriak sartu arren ardura banaketan ez da izango aldaketarik; Nerea Marurik jarraituko du presidente izaten eta Aitziber Gorosabelek idazkari lanak egiten. Karguek izena behar badute ere, lana guztiendako dagoela adierazi dute.

### INAUTERIAK GERTATZEN

Batzarra egin zuten zuzendaritza berritzeko, eta, bide batez, ikasturteko lan jarduna baloratu zuten. Ludoteka eta liburutegiaren martxarekin pozik azaldu ziren elkartutakoak.

Aurrera begira egin daitezkeen ekintzetan pentsatzen ere hasi ziren batzarrean elkartutakoak; udaberrirako irteeraren bat. Baina hori baino lehen Inauteriak datoz, eta otsailaren 21a antolatzen hasi dira: jinkana erako jolasak egingo dituzte pilotalekuan eta zozketa bidez sariak banatuko dituzte.



Iazko Inauterietan Gurelek antolatutako jolasak egiten. MIRARI ALTUBE

ARAMAIO > OSOKO BILKURA

# EAEren legez kanporatzearen prozesuaren kontra errekurtsoa ipiniko du Udalak

Espainiako Auzitegi Gorenaren erabakia errekurrituko dute; uste dute Udalaren konpetentzietan sartzen dela

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Espainiako Epaitegi Gorenak Eusko Abertzale Ekintza legez kanpo uzteko prozedura errekurritu egingo dute Euskal Herriko zenbait udalek. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroan, herrialde bakoitzean udal batek aurkeztuko du errekurtsoa. Arabaren kasuan Aramaio izango da Epaitegi Gorenean errekurtso hori aurkeztuko duena. Modu horretan salatu nahi dute Espainiako Epaitegi Gorenak Eusko Abertzale Ekintza legez kanpo uzteko udaletara bidalitako autoak larriki urratzen duela udalen barne funtzionamendua eta autonomia.

Espainiako Epaitegi Gorenaren autoak dio, besteak beste, Eusko Abertzale Ekintzako zinegotziak zirenek bakarka lan egin behar dutela udaletan eta ezin direla talde mistora pasa. Bada, errekurtso horrekin salatu nahi dute hori udalek hartu beharreko erabakia dela. Aramaioko Udal Gobernuak eguaztenean aurkeztu zuen, errekurtsoa egitearen aldeko mozioa oso bilkuran onar zedin. Udal Gobernua osatzen duten bost zinegotziek aldeko botoa eman zuten, baita EAko zinegotzi Andres Osinagak ere. EAJko zinegotzi bi abstenitu egin ziren; alderdi horretako hirugarren zinegotzia ez zen osoko bilkuran egon. Hori horrela, aldeko sei botorekin onartu egin zen mozioa.

Gipuzkoaren kasuan Pasaiako Udala da Auzitegi Gorenean errekurtsoa aurkeztuko duena; udalbatzarrak onartzen badu, behintzat.

ANTZUOLA > ELKARTASUNA

# Saharara bidaltzeko 36 kaxa bete ditu Anelkarrek

Elkartasun taldekoak gustura hitzaldiaren erantzunarekin eta jasotakoarekin

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Urtarrilean egin dute Saharako errefuxiatu guneetara bidaltzeko produktu bilketa herrian. Guztira, 36 kaxa bete dituzte, 538 kilo. Arroza (177 kilo) eta lentejak (124 kilo) izan dira gehien jaso dituzten jatekoak. Besteak: pasta (71 kilo); azukrea (50 kilo); garbantzuak ( 37 kilo); atuna (34 kilo); sardinak (22 kilo); babak (18 kilo); eta olioa ( bost litro). Horretaz gain, 14 pakete konpresa ere jaso dituzte.

Iazko bilketarekin alderatuta apur bat gehiago jaso dute aurten; hiru kaxa gehiago, hain zuzen ere. Gainera, oraingoan produktuak ere gehiago izan dira, aurrekoan ez baitzen konpresarik, garbantzurik, babarik, sardinarik eta oliorik jaso.

Jatekoez gain, dirua ere bidali zuten iaz, 2.275 euro, horietatik 725 euro Santa Ageda eskean jasotakoak. Aurten ere bidaliko dute, baina oraindik zehaztu gabe dago zenbat.

### ESKERRAK

Anelkarrek bultzatu du Saharako laguntza bidaltzeko kanpaina eta elkartekoak gustura daude emaitzarekin, bai jasotakoarekin, baita Sahararen gaineko hitzaldian 30 lagun izan zirelako ere. Eskerrak eman nahi dizkiete laguntza eman duten herritarrei, Herri Eskolari, kanpaina antolatzen eta gauzak jasotzen egindako lanarengatik, eta Aixa, Eroski eta Kalebarren dendei, horietan jaso baitira produktuak.



**> FUTBOLA**
Mondrak 0-0 berdindu zuen etxean Anaitasunaren aurka zapatuan **> 22**



**> SASKIBALOIA**
Eskoriatzako neskek zapatuan irabazi ostean gertuago dute lauko finala **> 24**

**> ESKUBALOIA**
Jordi Ribera Ademar Leon taldeko entrenatzailearekin izan gara. Riberak Brasil eta Argentinan bizitako esperientziak kontatu zituen Oñatiko hitzaldian **> 27**



**ESKUBALOIA** > LAGUNARTEKOA

# Asobal Kopa zergatik irabazi duen erakutsi zuen Leonek

**ZUBIKOA**
Hirugarren urtez jarraian antolatu du Aloñak lagunartekoa

**NAGUSITASUNA**
Ademar Leon lehia guztian izan zen aurretik markagailuan

**IGOR MOIUA**
Arrateko atezain Igor Moiuak aipamen berezia jaso zuen aita oñatiarra duelako




**ERASOA** Arrate taldeko Vobin jaurtiketa egin guran, Igor Kor aurkariaren aurrean. JOSETXO ARANTZABAL

**ARANTZAZU EZKIBEL** > OÑATI
Lehenengo mailako eskubaloia izan genuen zapatuan Oñatiko Zubikoa kantxan. Abenduan Asobal Kopa irabazi berri duen Ademar Leon taldea eta Eibarko Arrate nor baino nor gehiago ibili ziren; azkenean, baina, Leongo taldeak bere nagusitasuna erakutsi zuen eta inongo arazo barik gailendu zitzaion Arrateri (27-35).

**ADEMAR LEONEN NAGUSITASUNA**
Eskubaloiko Mundiala jokatu dute Kroazian egunotan; hala, Asobal ligan atsedena izan dute. Hori aprobetxatuz, lagunarteko partidua jokatu zuten Oñatin. Bi taldeak indartsu kantxaratu ziren: ondorioz, lehenengo minututan markagailua nahiko parekatuta egon zen. Hala ere, Jordi Riberak zuzentzen duen taldea beti izan zen markagailuan aurretik. Leongo taldeak hobeto kudeatu zituen selekzioekin hautatuta zeuden jokalarien gabeziak.

Atsedenaren ondoren, Eibarko taldeak behera egin zuen intentsitatean: erasoan baloi asko galdu zituzten eta aukera horiek aprobetxatu zituzten Leonek markagailuan aldea handitzeko; 15. minuturako 16-27 aurretik ziren. Amaierako emaitza 25-37 izan zen Leongoen alde.

**LIGARI BEGIRA**
Partidu amaieran Ademar Leon taldeko Julen Aginagalde irundarrak adierazi zigun taldea ondo ikusi zuela: "Nahiko ondo ikusi dut taldea. Astebete falta da liga berriro hasteko eta taldea indartsu dago. Nahiko denbora izan dugu partidua prestatzeko; internazional gutxi ditugu eta taldea momentu onean dagoela uste dut".

Bestelako iritzia zuen Igor Moiua eibartarrak: "Liga oso gaizki hasi genuen, partidu asko galdu genituen eta orain buelta ezin emanda gabiltza". Esan behar da, Moiuaren aita oñatiarra dela; hori dela-eta, partidu hasieran aipamen berezia egin zioten Moiuari.

**OROIGARRIAK**
Partiduaren hasieran, Oñatiko alkate Lourdes Idoiagak eta turismo zinegotzi Ernesto Murgiondok oroigarri bana eman zieten talde bakoitzeko arduradunei. Gainera, aipamen berezia jaso zuen Moiua Arrateko atezainak.

ESANAK

"Asobal liga irabaztea zaila da baina borrokatzeko moduan bagaudela uste dut. Kopa irabazteak indarra eman digu"
**Julen Aginagalde** > Leongo jokalaria

"Erdi oñatiarra naziela esan daiteke; hortaz, oso pozik nago zaleek Zubikoan egin didaten harrerarekin"
**Igor Moiua** > Arrateko jokalaria

"Arrate bezalako talde baten aurka jokatzea beti da zaila; gaur, ondo ibili gara eta samur irabazi diegula esan daiteke"
**Mikel Agirrezabalaga** > Leon jok.

**PREFERENTE MAILA** > MONDRA-ANAITASUNA

# Arrasatearrek zelai erdian indarra falta izan zuten aurrera egin eta gola egiteko

Gola egiteko aukera garbiena Anaitasunak izan zuen lehenengo zatiko 15. minutuan

MONDRA
**0-0**
ANAITASUNA

**Mondra** > Ander, Andoni, Illart (Loiti, 73. min.), Arando, Laspiur, Mercader, Keixi, Ekain, Murua, Heriz eta Aranbarri (Cabrera, 64. min.).

**Anaitasuna** > Mikel, Otano, Sodupe, Artetxe, Landa, Rocha, Korta (Balenziaga, 69. min.), Zabala, Aranbarri (Fernandez, 81. min.), Etxeberria eta Nuñez.

**Epailea** > Labaka jauna. El Moussagui eta De Sousa izan zituen laguntzaile lanetan.



Illart Etxeberria baloiarekin; atzealdean, Mondrako ordezko jokalariak. JOSETXO ARANTZABAL

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

Intentsitate bariko partidua jokatu zuten zapatuan Mondra eta Anaitasunak. Andoni Azkargortak zuzentzen duen taldeak ez zuen inolako meriturik egin partidua irabazteko; hala, huts eta hutseko berdinketa emaitza justua izan zela esan daiteke.

### ATEZAINAREN HUTSA

Partiduko 15. minutuan, etxekoen huts baten ondoren Anaitasunak partiduko lehenengo gola egiteko aukera izan zuen. Ander Ruiz de Azua atezainak baloi samur bat gaizki urrundu zuen, eta baloia aurrelariari utzi zion. Anaitasunako jokalaria atezainaren aurrean bakarrik geratu zen; baloia loratzen saiatu zen, baina ezin izan zuen Mondraren atea zulatu. Hurrengo jokaldian Jon Muruak izan zuen aukera, baina ezerezean geratu zen jokaldia.

### ZELAI ERDIAN INDARRA FALTA

Lehenengo zatian ez zen beste aukerarik ikusi Mojategin. Esan behar da etxeko taldeak indar gutxirekin jokatu zuela, batez ere zelaiaren erdialdean motel ibili ziren Azkargortarenak.

Bigarren zatian zerbait indartu zen etxeko taldea. Baloiaren jabetza handiagoa izan zuten eta aukera garbirik izan ez arren, hainbat aukera izan zituzten aurkariaren ate aurrean.

**PREFERENTE MAILA** > ARETXABALETA-VASCONIA

# Aretxabaletak goiko postuetako lehian jarraitzen du Vasconia mendean hartuta

ARETXABALETA
**1-0**
EHU-UPV VASCONIA



Iñaki Uribe baloiarekin; atzean, Gordobil begira. JOSETXO ARANTZABAL

**A.E.** > ARETXABALETA

Aretxabaletak ez du sailkapeneko goiko postuak utzi gura; atzo, Vasconiari irabazi ostean, Gordobil eta Arenazaren mutilak hirugarren postuan jarri dira bigarren dagoen Aloña Mendirekin berdinduta (37). Baina, kontuan hartu behar da aretxabaletarrek Tolosa eta Aloña baino partidu bat gutxiago jokatu dutela.

### GOLA, FALTA BIDEZ

Etxeko taldeak partidu txukuna jokatu zuen atzo Ibarran. Jarrera ona erakutsi zuten jokalariek, eta partiduaren kontrola izan zuten. Partiduko gol bakarra Iban Lopezek sartu zuen falta bidez. 35 minutuan izan zen hori.

Bigarren zatian, lehiak beste norabide bat hartu zuen: izan ere, epaileak Vasconiako jokalari bat egotzi zuen bigarren txartel horia erakutsi ondoren. Etxekoak, aukera aprobetxatu eta aurrera egin beharrean, urduri jarri ziren; hala, Vasconiak lehia berdintzeko aukera izan zuen. Kontuak kontu, baloia ez zen sareetan sartu eta hiru puntuak etxean geratu ziren.

**ALOÑA MENDI**

# Tolosa lider berria da Aloñari irabazita

TOLOSA
**1-0**
ALOÑA MENDI

**A.E.** > BERGARA

Aloñak ezin izan du joan den astean hartutako lidergoa eutsi. Zapatuan Tolosaren etxean 1-0 galduta bigarren tokira egin dute salto oñatiarrek; hala, Tolosa da preferente mailako lider berria.

Esan behar da lehenengo postuetan dauden taldeek lehia gogorra dutela; eta, gainera, Tolosa eta Aloñak besteek baino partidu bat gehiago jokatu dutela.

## emaitzak eta sailkapenak

### PREFERENTE MAILA

**Sailkapena**

| | Puntuak | JP |
|---|---|---|
| 1. **Tolosa** | **39** | 20 |
| 2. **Aloña Mendi** | **37** | 20 |
| 3. **Aretxabaleta** | **37** | 19 |
| 4. **Hondarribia** | **36** | 19 |
| 5. **Trintxerpe** | **34** | 19 |
| 6. **Hernani** | **33** | 19 |
| 7. **Real Union** | **32** | 19 |
| 8. **Pasaia** | **32** | 19 |
| 9. **Berio** | **29** | 19 |
| 10. **Idiazabal** | **26** | 19 |
| 11. **Aurrera** | **24** | 19 |
| 12. **Mondra** | **22** | 20 |
| 13. **Zumaiako** | **17** | 19 |
| 14. **Euskalduna** | **17** | 19 |
| 15. **Mundarro** | **14** | 20 |
| 16. **Vasconia** | **14** | 19 |
| 17. **Amaikak Bat** | **13** | 19 |
| 18. **Anaitasuna** | **12** | 19 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Mondra-Anaitasuna | 0-0 |
| Tolosa-Aloña Mendi | 1-0 |
| Mundarro-Berio | 0-0 |
| Idiazabal-Pasaia | 0-0 |
| Aretxabaleta-Vasconia | 1-0 |
| Euskalduna-Real Union | 0-1 |
| Trintxerpe-Hondarribia | 2-1 |
| Hernani-Aurrera | 6-0 |
| Zumaiako-Amaikak Bat | 0-1 |

**Hurrengoak**

Aloña Mendi-Mondra
Berio-Tolosa
Pasaia-Mundarro
Vasconia-Idiazabal
Real Union-Aretxabaleta
Hondarribia-Euskalduna
Aurrera-Trintxerpe
Amaikak Bat-Hernani
Anaitasuna-Zumaiako

### BESTELAKOAK

| LEHEN ERREGIONALA | |
|---|---|
| Urola-Antzuola | 0-2 |
| Bergara-BTLS | 2-2 |
| Lazkao-Aretxabaleta | 3-3 |
| Mutriku-Mondra | 3-1 |
| **BIGARREN ERREGIONALA, IGOERA** | |
| Bergara-Usurbil | 3-2 |
| **OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA** | |
| Aloña Mendi-Orioko | 1-1 |
| **1. MAILAKO GAZTEAK, IGOERA** | |
| Trintxerpe-Mondra | 1-4 |
| **1. MAILAKO GAZTEAK, KOPA** | |
| UDA Arizmendi-Eibartarrak | 1-1 |
| **OHOREZKO KADETEAK, IGOERA** | |
| Bergara-Kostkas | 3-2 |
| Beasain-UDA-Arizmendi | 4-1 |
| **OHOREZKO KADETEAK, KOPA** | |
| Aloña Mendi-Allerru | 4-1 |
| Arrasate-Elgoibar | 1-2 |
| **KADETEEN LEHENENGO MAILA** | |
| Ilintxa-Aretxabaleta | 2-2 |
| **KADETEEN LEHENENGO MAILA, KOPA** | |
| Soraluze-Bergara | 6-2 |
| Zestoa-Aloña Mendi | 3-1 |
| Lagun Onak-Arizmendi | 8-0 |
| **EMAKUMEZKOEN IGOERA** | |
| Arizmendi-Zumaiako | 2-1 |
| Anaitasuna-Mondra | 0-0 |
| **EMAKUMEZKOEN KOPA** | |
| Eibatarrak-Aloña Mendi | 4-0 |
| Goierri-Arizmendi | 1-6 |
| **EMAKUMEZKOEN F-8 KADETEAK** | |
| Euskalduna-Aloña Mendi | 3-2 |
| **EMAKUMEZKOEN F-11 KADETEAK** | |
| Bergara-Zumaiako | 7-1 |
| Anaitasuna-Arizmendi | 1-1 |
| Mondra-Lagun Onak | 2-2 |

**LEHEN ERREGIONALA** > BERGARA-BTLS

# Talde bat urduri eta bestea gogotsu, azkenean puntu banaketa derbian

Diazen mutilak bi goleko errenta lortu bazuten ere, bost minututan BTLS taldeak buelta ema zion partiduari; urduritasuna nagusi izan zen



Cabanillasek sartu zuen Bergararendako bigarren gola. JOSETXO ARANTZABAL

BERGARA
**2-2**
BTLS

**Bergara** > Soto, Agirrezabal, Lazpiur, Oregi, Nafarrate, Agirre (Mujika, 80. min), Cabanillas, Martinez (Crespo, 70. min.), Altzola (Otero, 80. min.), Ibañez (Balzategi, 45. min.)eta Loiola.

**BTLS** > Da Silva, Gallas (Arbulu, 75. min.), Corral, Rodri, Abaso, Ibai (Arejo, 86. min.), Boli (Berraondo, 85. min.), Mugu, Salegi, Jon Irazabal (Nathan, min.67. min.) eta Jon Sanchez.

**Golak** > 1-0: Nafarrate; 2-0: Cabanillas; 2-1: Nathan; 2-2: Mugu.

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Derbi polita jokatu zuten zapatuan Agorrosinen Bergara eta BTLS taldeek.

Lehen zatiko kontrola Bergarak izan zuen, eta BTLS taldeak ezin zuen zelai erditik aurrera pasatu. Manu Diazen mutilek eskuin eta ezker hegaletatik aukerak sortu zituzten, nahiz eta zelai erdian ez zuten lortu hasierako minutu horietan nahi zuten kontrola. Julen Aranburu eta Ibai Igartzaren mutilek lehen aukera argia 38. minutuan izan zuten: Ibai jokalaria area barruan jausi zen eta nahiz eta jokalariek penaltia eskatu zuten epaileak ez zuen halakorik ikusi. Jarraian, korner jaurtiketa baten ondorioz zutoinera bota zuten BTLSkoek. Lehen zatiko azken aukera Bergara taldeak izan zuen, baina Martinezen falta jaurtiketa zutoin ondotik kanpora joan zen. Husnako markagailuaz amaitu zen lehen zatia.

**BTLSREN ERREAKZIOA**

Bigarren zatian, BTLSkoek erreakzionatu egin zuten; lehen aukera garbia Ibaik izan zuen, baina bere burukada kanpora joan zen. Ondoren, korner jaurtiketa baten, Diazen mutilek aukera izan zuten Oregik egindako korner jaurtiketa baten ostean. Bigarren zatiko lehen laurdena bete zenean, bergararren gola etorri zen: Cabanillasek erdiratu eta Nafarratek burukada bikain batekin aurretik jarri zuen taldea. Bergara zelai erdiko jokoa kontrolatzen hasi zen, eta horrela, bost minutu beranduago, Cabanillasek baloia lapurtu eta jokaldi on batean 2-0 jarri zuen aurretik Bergara. BTLS ez zen ezkutatu eta aurrera jo zuen berdinketaren bila. Horrela, zelaian sartu berria zen Nathanek falta jaurtiketa baten ondorioz aldea murriztu zuen 25. minutuan. Diazen mutilak urduri jarri ziren; eta egoera hori aprobetxatuz, bost minutu beranduago, berdinketaren gola sartu zuen Muguk. Azken ordu laurdenean garaipenaren bila jo zuten bi taldeek, gainera BTLS jokalari bat gutxiagorekin zegoen –epaileak Abaso bi txartel horirekin egotzi ondoren–; azkenean, puntu banaketa Agorrosinen.



JOSETXO ARANTZABAL

## Arizmendiko neskak lider, Zumaiakori 2-1 irabazi eta gero

Garaipen garrantzitsua lortu zuten atzo Arizmendiko neskek Zumaiako taldearen aurka. Lidergoa zegoen jokoan, Zumaiako lehena zihoan eta Arizmendikoak bigarren. Haizeak asko baldintzatu zuen jokoa. Partidu oso borrokatua izan zen hasieratik bukaera arte. Kostaldeko taldea aurreratu zen lehen zatian, baina Lur Delgadok aldaratze batean gol bikaina lortu zuen. Berdinketa zen nagusi markagailuan eta jokoan; bigarren zatian, garaipenaren gola Eider Lorenzok lortu zuen.

**LEHEN MAILAKO ERREGIONALA** > MUTRIKU-MONDRA

# Entrenatzaile berria, baina esku hutsik bueltatu ziren etxera

MUTRIKU
**3-1**
MONDRA

**J.Z.** > BERGARA

David Zaitegiren lehen partidua izan zen zapatukoa– Sergio Olivenza eta Jose Tena ordezkatu ditu– eta ezin izan zuen garaipena lortu Mutrikuren zelaian .

**LEHEN GOLA BEREHALA**

Futbol zelai egoera txarrean zegoen baina ez zen aitzakia izan, nahiz eta 3-1eko emaitza gehiegizkoa izan zen. Hasi eta berehala, bigarren minutuan etxekoak aurreratu ziren. Mutrikuarrak erasoan jarraitu zuten eta Mondra taldea berdinketaren bila; baina lehen zatia horrela amaitu zen.

Bigarren zatian, korner jaurtiketa baten ondorioz bigarrena sartu zuten mutrikuarrek; Zaitegiren mutilek ez zituzten besoak jaitsi, eta ekinaren ekinez Mondrak markagailuan hurbiltzeko aukera izan zuen mutrikuarrek euren atean aldaratze baten ondorioz sartutako golari esker.

Mondrak lanean jarraitu zuen berdinketaren gola egiteko; hala aurrera jo zuten jokalari guztiek. Ondorioz, atzean zulo handia utzi zuten arrasatearrek eta kontraeraso batean mutrikuarrek hirugarren gola egin zuten. Mondra punturik gabe etxera.

**SENIOR EMAKUMEZKOAK** > ESKORIATZA-BAREAK

# Lauko finala jokatzeko aukera gertuago dago

Lehen hiru laurdenetan nagusi izan ziren etxekoak; azken laurdenean bakarrik sartu zuten Beasainekoek etxekoek baino puntu gehiago

ESKORIATZA

**42-23**

BAREAK BKL

**Eskoriatza** > Sanchez (4), Laborda (2), Carreras (7), Heriz (4), Alartzia (2), Usabiaga (5), Gomez, Exposito (10), Soriano, Ugalde (6) eta Sologaiztoa (2).

**Bareak BKL**> Aspiunza H., Tapia (2), Cobos, Rodriguez G. (12), Goikoetxea (2), Iruretagoiena, Rodriguez A. (19), Garmendia (3), Paradela (2), Aspiunza I. eta Criado.

**Laurdenetako emaitzak** > 10-4; 22-7; 37-17 eta 42-23.

**JASONE ZABALA**> ESKORIATZA

Garaipen oso garrantzitsua lortu zuten joan den zapatuan Fernando Rasoren neskek Beasaineko taldearen aurka. 19 puntuko diferentziarekin amaitu zen partidua.

Sailkapenean bi taldeen artean dagoen aldea hasierako minututik agerian gelditu zen Intxaurtxuetan. Etxekoak ohikoa den bezala intentsitatea jarri nahi zioten partiduari hasieratik eta halaxe izan zen; errebotean ere euren nagusitasuna erakutsi zuten, baina saskiari begira ez ziren oso fin ibili lehen laurdenean eta 10 puntu baino ez zituzten sartu eskoriatzarrek. Rasok hainbat aldaketa egin zituen freskotasuna eman nahian taldeari. Horrela, bigarren laurdenean defentsa sendotu egin zuten etxekoek. Indibiduala eta zonakako 1-3-1 defentsak erabili zituzten beasaindarrei erasoko jokoa zaildu, eta kanpotik jaurti zezaten. Horrela, etxekoek lehen laurdenean lortutako puntu kopuru berdina lortu zuten bigarren laurdenean ere. Atsedenaldira 22-7 emaitzarekin heldu ziren.

**ERREAKZIO TXIKIA**

Bigarren zatian, Beasaineko taldea intentsitate handiagoarekin atera zen jokatzera eta arazoak sortu zizkion erasoko jokoan etxeko taldeari; 2-3 zonakako defentsan jarri ziren eta Eskoriatzako taldeak ezin zuen barruko jokoa eroso egin; hala, kanpotik botatzera behartuta zeuden askotan. Kanpotarrek, erasoan, pixka bat gehiago asmatu zuten. Horrela, hirugarren laurdeneko partziala estuagoa izan zen (15-10).

**OSO PUNTU GUTXI**

Hori ikusita, Rasoren neskek azken laurdenean defentsako lana gogortu egin zuten. Gainera, erasoan urduritasuna ere agertu zen, bai saskiratzerako orduan eta baita defendatzan ere.

Markagailuko abantailarekin jokatu zuten etxekoek, eta nahiz eta erreboteetan nagusi izan ziren asko kostatu zitzaien puntuak sartzea azken laurden horretan bi taldeei. Azken laurdenean lortu zituzten puntu gutxien (5-6); laurden hori izan zen gainera, nahiz eta puntu bakar bategatik izan, beasaindarrak irabazi zuten laurden bakarra. Azkenean, etxean gelditu zuten beste garaipen bat, talde guztiak egindako lan onari esker.

**OSO PUNTU BI JARDUNALDI FALTA**

Txapelketako lehen fasea amaitzeko bi jardunaldi baino ez dira gelditzen eta Eskoriatzarrak bigarren doaz sailkapenean. Datorren astean, azken aurreko tokian dagoen Ordiziari egin beharko diote bisita.

Azken jardunaldia lehen tokian dagoen Añorga talde sendoaren aurka– oraindik ez dute partidurik galdu– jokatu beharko dute; ordurako lauko finalerako sailkapena lortuta izatea da asmoa. Lauko finalan lehen fasea lehen lauren artean amaitu dutenen artean jokatuko dute.




Taula azpiko borroka handia izan zen partidu osoa zehar. JOSETXO ARANTZABAL

**LEHEN MAILA NAZIONALA** > MU-ZORNOTZA

# Talde jokoak hobera egin bazuen ere, ezin garaipena lortu

Partidua parekatua izan bazen ere, Zornotzak ederki kontrolatu zuen

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

**65-75**

ZORNOTZA

**J.Z.** > ARRASATE

Javi Zurbanoren mutilek ezin izan zuten sailkapenean goiko postuetan dagoen Zornotzaren aurka txapelketako hirugarren garaipena lortzerik izan. Partidu polita izan zen, nahiz eta intentsitate pixka bat falta izan zitzaion. Etxekoak saiatu ziren barruko jokoa eta kanpokoa egiten hiruko jaurtiketen bidez baita kontaerasoko jokoa ere, kontuan hartuta Zornotzako taldea zortzi jokalarirekin etorri zela Arrasatera eta nekea nabari zutela.

**AMAIERA ARTE PAREKATUA**

Norgehiagoka amaiera arte izan zen parekatua. Aukerak izan zituzten bi taldeek, baina bizkaitarrek hasieran lortutako emaitza kontrolatzen jakin zuten. Aipatu, aste batzutan jokatu gabe lesionaturik egon den Xabier Anasagastik minutuak jokatu zituela.



Gorka Kintanak partidu ona jokatu zuen. GOIENKARIA

**SENIOR MUTILAK** > ALOÑA MENDI-BIOK

# Oñatiarrek liderra mendean hartu zuten partidu on batean

Partidua berdinduta joan zen; baina etxekoek kontrolatu zuten amaiera arte

ALOÑA MENDI

**76-68**

BIOK

**J.Z.** > OÑATI

Oñatiko mutilek partidu garrantzitsua irabazi zuten egubakoitzean Zubikoa kiroldegian. Lehen zatia ondo hasi zuten eta 12-2ko partziala egin zuten. Etxekoak ez ziren urduri jarri eta ondo aukeratu zituzten jaurtiketak. Ordiziarrek hiruko bi saskiratze sartu zituzten eta partiduan sartu ziren berriro; gainera, zonakako defentsa egin zuten partidu osoan zehar. Baina atsedenaldira 40-35 heldu ziren.

**SUSPERTU HIRUGARRENEAN**

Hirugarren laurdenean ordiziarrak esnatu egin ziren eta 0-8ko partziala egin zuten. Partidua oso berdinduta zihoan ordura arte. Orduan, oñatiarrak garaipena arriskuan ikusita, zonakako defentsan jarri ziren; aipatu, etxekoek inoiz baino jaurtiketa libre gehiago huts egin zituztela. Azken laurdenean etxekoen erreakzioa etorri zen eta garaipena lortu zuten.

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA** > LEHENENGO TERRITORIALA

# Markagailuan atzetik ibili ostean, berdinketa lortu zuten bergararrek

Lehenengo zati txarra egin ondoren, bigarren zatian Muniategiren mutilak indartuta atera ziren eta markagailua berdintzeko gai izan ziren


Gorka Uribe jaurtiketa egiteko gertu; atzokoan bost gol egin zituen. JOSETXO ARANTZABAL

SORALUCE BERGARA
**27-27**
EIBARKO HARITZA

**Soraluce Bergara** > Errasti, Uribe (5), Etxeberriarteun, Ugalde (6), X. Najera (1), Plazaola (3), Lenisoro, Manuel (5), Orgaz (1), Larrañaga (5), Kapelastegi, Urbina (1), Unamuno eta Agirre.

**Eibarko Haritza** > Sodupe (2), Ipiña (3), Atienza, Gesalaga (2), Cebrian, Blanco (3), Delgado (13), Duran (2), Teruelo, Azkarate, Perez, Sudupe (2) eta Tirados.

**Golak** > 8-10, 9-11, 10-12, 12-14. Atsedena. 14-15, 16-17, 18-19, 20-22, 24-24, 27-27.

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Partidu guztian markagailuan atzetik joan ostean, Bergarako mutilek lehia berdindu eta puntu bat eskuratzea lortu zuten atzo Labegaraietan. Modu horretan, azkeneko bolada txarra moztu zuten bergararrek.

Batez ere lehenengo zatian ibili ziren gaizki etxeko mutilak. Erasoan nahasmen handia izan zuten, eta modu horretan baloi asko galdu zituzten. Atsedenerako bi minutu falta zirela, bi hutsarte izan zituen lehiak. Aldageletara, 12-14 atzetik joan ziren Muniategiren mutilak.

**BIGARRENA, HOBETO**

Aldagelatik bueltan bergararren jokoak beste erritmo bat hartu zuen. Hasierako minutuetan urduri ibili ziren arren –lehenengo hiru erasoetan baloia galdu zuten–, markagailuari buelta emateko gauza izan ziren.

Batez ere erasoan izan zituzten zailtasunak etxeko mutilek. Eibarko taldeko defentsan zuloak egitea oso zaila egin zitzaien, eta ondorioz kanpoko jaurtiketez baliatu ziren golak egiteko. 35. minutuan Plazaolak markagailua 15-15 jartzeko bidea izan zuen penalti bidez, baina huts egin zuen. Partiduko lehenengo berdinketa 15. minutuan etorri zen: 19-19. Handik aurrera Bergara markagailuan aurretik ere izan zen baina azkenean berdinketarekin konformatu behar izan zuten etxeko mutilek. Datorren astean ere etxean jokatuko dute.

**EUSKADIKO TXAPELKETA** > GOREN MAILAKO EMAKUMEZKOAK

# Oñatiarrek bigarren postuari eutsi diote Portugaleten lehia samurra irabazita

Datorren astean Aloña Mendiko neskek etxean hartuko dute Pulpo taldea

JARRILLERAS
**22-26**
VERKOL ALOÑA-MENDI


Aloñako jokalaria jaurtiketa egiteko gertu. ARTXIBOA

**A.E.** > BERGARA

Aloña Mendiko neskak bi punturekin itzuli ziren zapatuan Portugaletetik Jarrilleras taldeari 22-26 irabazita.

Ainhoa Unamunok zuzentzen duen taldeak gaizki hasi zuen lehia; lehenengo zatian galtzen ibili ziren denbora askoan, lau goleko aldearekin, gainera. Baina minutuak aurrera joan ahala oñatiarrek jokoaren intentsitatea bizkortu zuten, eta lehiari bueltа emateko gai izan ziren. Hala, atsedenera 10-14 aurretik joan ziren Aloñako neskak.

**BIGARREN POSTUA**

Garaipenarekin Aloñak sailkapeneko bigarren postuari eusten dio. "Lehenengo lauen artean sailkatuz gero, igoera fasea jokatzeko sailkatuko gara", dio Unamunok. Hiru partidu falta dira liga amaitzeko. Datorren astean Pulpo taldea hartuko dute etxean Aloñako neskek.

**BESTE EMAITZAK**

Euskadiko txapelketako gazte mailako neskek 25-14 irabazi zuten; eta, kadete neskek 8-27 galdu zuten Elgoibarren aurka.

**GIZONEZKOAK**

# Uste bezala lan eginda garaipena lortu zuten

HONDARRIBIA
**21-22**
FORD MUGARRI ARRASATE

**A.E.** > BERGARA

Arrasateko Euskadiko txapelketako senior mailako mutilek garaipen garrantzitsua eskuratu zuten zapatuan Hondarribian. Lesioak tarteko, jokalari gutxirekin joan ziren arrasatearrak lehiara; baina, entrenatzailearen esanetan, "pentsatutako moduan" jokatu zuten, eta horrek garaipena ahalbideratu zien.

"Zonaldeko defentsa sakona egin dugu", azaldu zuen Edu Orgaz entrenatzaileak. Atsedenera 9-8 atzetik joan ziren arren, bigarren zatiko 15. minutuan markagailuan aurretik jartzea lortu zuten. Gero, hiru goleko abantaila ere izan zuten arrasatearrek.




Irudian Arizmendi Dragons taldeko jokalariak, pozik lortutakoarekin. URTZI AMIANO

**SASKIBALOIA** > SERIES COLEGIALES FINALA

# Arizmendi Dragons, Tau Baskonia konferentziako txapeldun

Orain iparraldeko konferentziari egin beharko diote aurre: Bruesa, Iurbentia eta Cai Zaragoza

ARIZMENDI DRAGONS
**50-44**
DIOCESANAS

**JASONE ZABALA** > ARRASATE
Eguenean jokatu zuten Arizmendi Dragons taldekoek finala Diocesanas taldearen kantxan. Nagusitu egin ziren, eta ipar zonako finalerako sailkatu dira. Urtzi Amiano taldeko arduradunak adierazi zigun moduan, "izugarria, zirraragarria" izan zen partidua.

**PARTIDU HASIERA INDARTSUA**
Partidua oso indartsu hasi zuten Arizmendiko mutilek; lehen bi minutuetan 6-0ko partziala egin zieten gasteiztarrei eta bigarren laurdena bukatzerakoan hogeitabi puntuz ziren aurretik (32-10). Ustekabean, bigarren zatiaren hasieran, hamar puntura hurbildu ziren Diocesanasko mutilak; 39-29, hain zuzen ere.

**TENTSIO HANDIKO MINUTUA**
Partidua bukatzeko minutu bat falta zela hasi zen benetako lehia Gasteizen: Arizmendiko *herensugeek* puntu bakarreko aldea zuten, eta baloiaren jabetza Diocesenaskoen esku zegoen; orduan erakutsi zuten Arizmendiko mutilek benetako momentuetan urduritasunak alde batera uzten dakitela. Horrela, baloiaren jabetza berreskuratu eta minutu bakarrean berriz ere aldea ateratzeko gauza izan ziren; eta beste bost puntu gehiago lortu zituzten.

Partidu amaieran Amiano oso pozik azaldu zen lortutakoarekin: "Benetan goraipatzekoa da Arizmendiko mutilek finalean erakutsitako gogo eta kemena". Mutilek garaipena Arizmendiko neskei eskaini zieten, pasa den urtean jokatutako finala ezin izan zutelako irabazi.

**TALDEKO LANAREN EMAITZA**
Series Colegiales ACBko saskibaloi klubek antolatzen duten gazte mailako txapelketa da. Joan den urtean neskek ez zuten finala irabazterik izan, baina aurten, Arizmendi Dragons taldeko mutilek aukera izango dute iparraldeko konferentziakoen aurka jokatzeko.

Amaitzeko, Urtzi Amianok honako hau adierazi zuen: "Eskerrak eman nahi diegu Ointxe! eta Eskoriatzako kirol elkarteei, beraiek egiten duten formakuntza lanik gabe ezinezkoa izango litzatekeelako horrelako lorpena".

# Iker Larrea, Donostiako herri krosean txapeldun

Joan de domekan Donostiako Nazioarteko Krosa jokatu zen Zubietako hipodromoan. Iker Larrea antzuolarra, Giokela Antxintxiketan taldekoa, izan zen azkarrena. Asier Osinaga oñatiarra (32), Gaizka Romero oñatiarra (33) eta Zigor Esnaola plazentziarra (35) izan ziren bertan. Euria eta haizea protagonista izan ziren goiz osoan.




ASIER OSINAGA

**HEZKUNTZA**

# Bost ikastarotan izena eman daiteke

Kirolarekin lotutako ikastaroak emango ditu Arizmendiko Lanbide Heziketak

**J.Z.** > ARRASATE
Arizmendi ikastolako Lanbide Heziketak, Aktiba elkartearekin batera, bost ikastaro eskainiko ditu otsaila eta maiatza bitartean. Ikastaroak Hobetuz programaren bitartez kudeatuko dira; eta hurrengo urteari begira jarraipena izango duen ekimen bat egiteko asmoa ere azaldu dute Arizmendi ikastolak eta Aktiba elkarteak.

Antolatzaileek adierazi dute orain dela urtebete Aktibak, turismo aktibora dedikatzen diren enpresen elkarteak, formazio beharrak aurreikusi zituela kirol esparruan.

**GUZTIENDAKO AUKERAK**
Ondorioz, Arizmendi ikastolako Lanbide Heziketako TAFYDko (Aisialdi eta kirol ekintzetan teknikaria) espezialistekin harremanetan jarri ziren, eta bost ikastaro antolatu dituzte: arku tiroketaren kirol teknikaria; turismo aktiboko lan arriskuen segurtasuna eta prebentzioa; piraguismoko kirol teknikaria; uretako sorospena eta turismo aktiboko arautegia eta legedia.

**NOLAKO IKASTAROAK?**
Ikastaro guztiek zati teoriko eta praktikoak izango dituzte; eta erabiliko dituzten metodologia eta tresneriaren arabera, Arizmendiko egoitzetan (Ferixalekua eta Almen) edota ingurune berezietan egingo dira, hala nola Urdaibai, Gorliz, Txingudi...

**LEHEN SAIOA EGINDA**
Lehen ikastaroa, arku Tiroketaren kirol teknikariarena, hasi da dagoeneko. pasa den astelehen eta martitzenean eman zuten ikastaro hori eta irakasle lanetan Arkaitz Erkiaga lekeitiarra aritu zen. "Elkarteko 30 pertsonek eman zuten izena. Horietatik 20 lagunek talde bat sortu zuten; eta gainontzekoak hurrengo saio baterako zerrendan gelditu dira", azaldu zuten Arizmendiko arduradunek.

Esan bezala, hemendik eta maiatzera bitartean ikastaroetan parte hartzeko aukera egongo da, eta nahi duenak lehenbailehen eman dezake izena; Arizmendira jo beharko du.

Jordi Ribera > Ademar Leongo entrenatzailea

# "Eskubaloiak garapen handia izan du, eta garrantzi handia duen kirola da"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

**Asobal mailako Ademar Leongo entrenatzaile Jordi Riberak berbaldia eman zuen zapatu goizean Oñatiko Unibertsitatean. Argentinan eta Brasilen bizitako esperientziak kontatu zituen entrenatzaile kataluniarrak. Harekin izan ginen; gainera, abenduan irabazitako Asobal Kopagatik zoriondu genuen.**

**Zer azalduko duzu gaur Oñatiko Unibertsitatean?**

Sinestea zaila bada ere, orain bi urte Brasilen nengoen haurren campus batean. 120 gazterekin egin nuen lan; eta, gainera eurekin bizi izan nintzen. Bi urtez egon nintzen han; joko ereduak sortu eta hango jokalariei eskubaloiaz nekiena erakusten egon nintzen. Mutil haiek Brasilgo eskubaloiaren harrobia dira.

Eskola garaian eskubaloian asko jokatzen dute hango gazteek. Eskola mailan kirol garrantzitsuena dela esan daiteke. Nire asmoa talde nagusia Txinako olinpiadetarako sailkatzea zen; baina era berean, lan paraleloa hasi nuen hango gazteekin.

Hasiera batean, campus estiloko jarduera batzuekin hasi ginen lanean 120 gazterekin. Brasilgo ia probintzia guztietako jokalari eta entrenatzaileak elkartu genituen; asmoa, joko ereduak praktikan jartzea zen. Campusean parte hartu zuten jokalari eta entrenatzaileek ereduak ikasi eta gero euren probintzietara zabaltzea zen helburua.

**Nola izan zenuen Brasilera joateko aukera?**

Urte hartan ez nuen Bidasoan denboraldia bukatzeko aukera izan. Gainera, 16 urte baino gehiago nindoan Asobal mailako entrenatzaile lanetan, eta aldaketa beharra neukan, bai pertsonalki eta baita kirol mailan ere. Hala, Argentinara joateko aukera sortu zitzaidan, eta momentu ona zela pentsatu nuen. Hemen bizi nuen kirol profesionalaz haratagoko esperientzia bizitzeko aukera zela uste nuen.

Argentinan oso esperientzia polita bizi izan nuen; kontraste handiko herrialdea da eta bidaiatzeko aukera paregabea izan nuen. Gainera, mundial batean parte hartu nuen. Urtea amaitu zenean, Brasilgo selekziotik deitu zidaten eta bi urtez egon nintzen han. Brasilgo esperientziak Olinpiadetan parte hartzeko aukera eman dit. Nagusiekin Olinpiadei eta mundialei begira lan egin dut; Joko Panamerikarrak irabazi eta ondorioz Olinpiadetara joateko sailkatu ginen.

Hiru urte zoriontsu izan ziren; gero, Ademar Leonen eskaintza izan nuen eta berriro Asobalera itzultzeko momentu ona zela uste izan nuen.

**Eskubaloia ulertzeko modua ezberdina da han eta hemen?**

Badaude ezberdintasunak. Hemen, eskubaloiaren zati bat profesionala da; han, ostera, zailagoa da profesionala izatea. Esan behar da, hango eskoletan oso kirol ezaguna dela eskubaloia, baina behin eskola garaia bukatutakoan gazte gehienak lanean hasten dira, eta ez dituzte hemen ditugun oinarriak kirolarekin jarraitzeko.

Sao Paulo hirian eta Parana eta Santa Catarina hirietan batzen dira elkarte profesionalak. Gainontzeko eskualdetan amateur mailako taldeak daude. Hori dela-eta, elkarteen lana askoz arinagoa da eta jokalari gutxiago daude.

Esan daiteke oinarrizko lehengaia ona dela, baina profesionalki garatzeko aukera gutxi dituzte.

**Nola ikusten duzu hemengo eskubaloiaren egoera?**

Ondo, garapen handia izan duela esan daiteke. Eskubaloiak garrantzi handia hartu du, batez ere hainbat kirol taldek izan dituzten lorpenengatik. Baina, esan behar da, orain garai txarra bizi dugula, batez ere krisiarengatik. Kirol profesionala hori da, profesionala, eta horretarako dirua gura da. Gaur egungoa garai txarra da hainbat talderentzat. Baina, uste dut eskubaloia kirol osasuntsua dela, eta jende asko dabilela horretan.

**Urte asko daramatzazu lanean. Zer eskatzen diozu jokalari bati lan egiterako orduan?**

Batez ere inplikazioa eskatzen diot; eta, baita esfortzua ere. Jokalari bat hautatzen dudanean, ezaugarri jakin batzuk dituelako da: ezaugarri fisikoak, taktikoak eta baita psikologikoak ere. Hiru ezaugarri horietako bat barik zaila da aurrera egitea.

**Entrenatzaile bezala, zein uste duzu dela zure alde ona?**

Oso analitikoa naiz eta baita saiatua ere. Uste dut nire ezaugarri garrantzitsuenak horiek direla. Ordu asko ematen ditut nire lana aztertzen. Gainera, nire lana antolatzerako orduan gauza berriei irekita nago, eta hori garrantzitsua dela uste dut.

**Ahaztu aurretik, zorionak lortutako Asobal Kopagatik. Nolako esperientzia izan zen?**

Oso esperientzia polita izan zen; kontuan hartu bi emaitza txar izatetik gentozela, Bartzelona eta Ciudad Realen aurka. Baina, taldea horri buelta eman eta Kopa irabazteko gauza izan zen. Esperientzia ikaragarria izan zen guztiontzat; Leongo jendeak ere gogotik bizi izan zuen garaipena bi egunez jarraian. Gainera, Asobal Kopak Europarako sailkapena eman digu.




Jordi Riberak goizean Unibertsitatean eman zuen berbaldia, eta arratsaldean Zubikoan izan zen. JOSETXO ARANTZABAL

**"Asobal Kopa irabaztea oso esperientzia polita izan zen; kontuan hartu bi emaitza txar izatetik gentozela, eta taldeak aurrera egin zuen"**

**Ligan, hirugarren postuan zaudete liderrarengatik hiru puntura. Nola dago taldea?**

Liga oso konplikatua izaten dabil. Gainera, orain Europako txapelketa hasiko dugu eta horrek ere zaildu egiten du ligako jarduera. Baina, hala ere, liderrarengatik banatzen gaituzten hiru puntuak ez dira gaindiezinak; hortaz, lehian jarraituko dugu eta ahalegin guztiak egingo ditugu.

**Urte gutzi hauetan, zein uste duzu izan dela zure lorpen handiena?**

Kirol mailan, Asobal kopa irabaztea oso garrantzitsua izan da; bestalde, pertsonalki esango nuke joko olinpikoetan egotea lorpen handia izan dela.

**Etorkizunera begira jarrita, ze amets duzu?**

Ez dakit. Beti daude irabaztea gustatuko litzaidakeen tituluak; baina, taldearen egoerak eragin handia izaten du horretan. Bestalde, nik beti esaten dut oso gustura nagoela nagoen lekuan.



**Xabin Arriola**
> Irakaslea

Kaixo kirolzale: hemendik aurrera ASTELEHENEKO GOIENKARIA-n orrialde hau eskaini nahi dizuegu Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketatik. Gorputz eta Kirol Jardueren Sustapena (TAFYD) zikloko irakasleok kirolari buruzko artikulu batzuk idatzi eta zure esku jartzea interesgarria delakoan gaude. Kirola maite dugunontzat baliagarri izan litekeen informazioa ateratzen saiatuko gara, gure aisialdiko praktika era egokiagoan eta seguruagoan jorratzeko.

Hurrengo asteetan, kirol desberdinei buruzko gaiak landuko ditugu; kirol bakoitza praktikatzeko orduan bete beharreko gomendioak eskainiz.

Eskiaren hastapena eta entrenamendua; gimnasioko lana; korrika; igeriketa... izango dira, besteak beste, atal honetan aurkituko dituzun gaiak.



Eskia aldarte onean, modu egokian eta osasuntsu egiteko, gomendio batzuk jarraitzea ezinbestekoa da. ARIZMENDI

**ESKIA** > PRESTAKETA

# Eski denboraldi osasuntsua

Aurtengo eski denboraldia gogor hasi zaigu elur kontuetan. Aspaldiko partez, abenduko zubia baino lehenago ireki dituzte eski estazioak, elurra gogotik egin du gurean ere, elurraren kalitatea ezin hobea aurki daiteke estazio gehienetan... Seguruenik, honezkero, askok eta askok egin ditu denboraldiko lehen jaitsierak eta, agian, batzuendako berandu gabiltza gomendio hauek eman nahian. Dena den, oraindik hilabete luzeak ditugu aurretik eta kirol jarduera honekin jarraitu edo, batez ere, hasi nahi duenarendako, eski irteera bat prestatu eta egiteko kontutan izan beharreko gomendio batzuk eskaini nahiko genituzke.

Elurrarekin gozatu eta bertan eskiatzea zoragarria den bezala, eskiatzeak izan ditzake arrisku batzuk ere, irteera ondo planifikatu eta gure burua ondo prestatuz gero, saihestu ahal izango ditugunak.

## SEGURUAGO ESKIATZEKO, KONTUTAN IZAN BEHARREKOAK

**> ESTAZIOA**
Lehenik eta behin, eski estazioa ezagutu: non eta zein egoeratan eskiatu behar dugu jakin; estazioaren fitxa teknikoa (pista motak e.a.), planoa, zein baldintzetan aurkitzen den (elur maila, mota, zenbat pista irekita...), horiek kontutan hartu behar dira.

**> BIDAIA**
Egin beharreko bidaia ondo antolatu: autoa ondo prestatu (kateak ez ahaztu), irteera ordua ondo aukeratu. Lehen aldiz zoaztenoi, irteera antolatuak hartzea edo kirol hau ondo ezagutzen duen norbaitekin joatea gomendatuko genizueke.

**> MATERIALA**
Beharrezko materiala prestatu: arropa egokiak, betaurreko, eskularru eta kremak, egun horretan jatekoa...

**> EGURALDIA**
Eguraldiaren iragarpena ezagutu: eguraldiak asko baldintza dezake eraman beharreko materialaren zerrenda. Gogoratu eguzkia, hotza eta haizea direla eski egun batetan aurki ditzakegun aldagai klimatiko nagusiak.

**> GORPUZKERA**
Gorputza prest izan eta entrenatu: gure ezaugarri fisikoen prestakuntza orokor bat egiteak 2 abantaila, behintzat, eskainiko dizkigu. Batetik, gerta daitezkeen lesio arriskuak gutxitzea; bestetik, eskiarekin gehiago gozatzea (nekatu gabe eskiatu, jaitsiera luzeak egin, biraketa bakoitzean indartsu sentitu...).

**> BEROKETA**
Behin bertan gaudela: eskiatzen hasi aurretik, beroketa saioa egoki egin; lehenengo jaitsierak poliki egin, noizean behin atseden txiki batzuk hartu; ondo hidratatu (ura sarri edan) eta elikatu. Eta lehertuta egon aurretik, azken jaitsiera famatu hori hurrengorako utzi. Gogoratu, eskiko lesiorik gehienak lehenengo (gorputza hotz dagoelako) eta azken jaitsieretan (gorputza nekatuta dagoelako) ematen direla.

**> NATURAREKIKO ERRESPETUA**
Azkenik, natura errespetatu: ez dezagun ahaztu hura mendia dela, animaliak daudela... Kontuz paper, botila eta plastikoak edozein lekutan uztearekin, teleaulkitik zigarro mutxikinak botatzearekin...

## Segurtasun arauak

> Eskiatzaileak bere jarrerarekin ez du inoiz beste inor arriskuan jarri behar.
> Eskiatzean beti kontrola eraman (abiadura, e.a.).
> Goitik datorren eskiatzaileak izango du behean daudenen segurtasunaren ardura.
> Norbait aurreratzerakoan, abisua eman eta aurreratua izan denari nahikoa leku utzi bere ibilbidea jarraitzeko.
> Pista batetan sartzen den eskiatzaileak edo pista gurutzeetan, beti alde guztietara begiratu eta lekua dagoela bermatu.
> Inoiz ez geratu pista erdian, leku estuetan edo ikusmen eskasa dagoen tokietan.
> Oinez doazenak (gora edo behera) pistaren albo batetik har dezatela beraien ibilbidea.
> > Estazioko arau, seinale eta kartelak errespetatu behar dira.
> Norbait min hartuta edo laguntza beharrean aurkituz gero, laguntza eskaini.
> Istripu bat gertatzen bada, lekuko guztiek beraien izena eman beharra dute.

## ESKIATU AURREKO BEROTZEKO ARIKETAK

**>** Lekuan, korrika eta jauzi motelak giharrak aktibatzeko: oinak lurretik altxatu, belaunak latxatu.

**>** Mugimendu artikulatuak: mugitu besoak, gerria, aldakak, belaunak, bizkarra...

**>** Luzaketak: ikus taula.

**>** Indar lana: 5 eserialdi, 5 albo eserialdi, 5 pausu luze.

**>** Eskiak hanketan: lehenengo jaitsiera erritmo motelean egin, biraketa eta belaunen flexioak sartu...



## Datozen asteetan...

Eskia eta bere arriskuak. | Eskirako prestakuntza fisikoa eta entrenamenduak. | Eskiko lesioak eta berauen errekuperazioa. | Pistaz kanpoko eskia. | Mendiko eskia.

Arizmendi ikastola PRO 2.0 PROFESIONALAK
Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa



**> 77KO PUNKA**
UK Subs eta Vibrators taldeek kontzertua egin zuten Arrasateko 3.60 aretoan **> 30**



**> IÑAKI SALVADOR**
Piano jotzaile beteranoak emanaldia egin zuen zapatuan Amaia Udal Antzokian **> 31**



**> JUAN KRUZ MENDIZABAL**
Bergarako abade berritzailea oso 'mediatikoa' bihurtu da aspaldian **> 40**

# Malenkonia bidaialagun, Lertxundi hunkigarri

Eskoriatzako kiroldegia plaza ezaguna da oriotarrarendako, eta oraingoan ere bihotza xamurtasunez hustu zuen kantuz eta hitzez

Azkeneko lana oinarri izan zuen, baina hainbat klasiko ere interpretatu zituen; horrez gain, musikariei protagonismo handia eman zien

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Benito Lertxundi ikonoa da jende askorendako; atzo, gaur eta seguruenik bihar ere. Horrek esan gura du ikusleak eta jarraitzaileak ez zaizkiola inoiz falta izango, zer esanik ez, Eskoriatzan. Bi urtetik behin gutxienez aritzen da han eta beti izaten ditu jarraitzaileak guztia emateko prest; ederto hartzen dute oriotarra.

Eskoriatzan aritu zen aurrekoan hiru orduko emanaldia egin zuen, ikaragarria izan zen. Oraingoan, baina, bi ordu egin zituen agertoki gainean eta Orioko bardoak hainbat atsedenaldi hartu zituen taldeari –oso musikari txukunez osatutakoa– protagonismoa emanez. Seguruenik, horretan eragina izango zuen biharamunean Gasteizen Korrika Kulturalari hasiera emango zion kontzertua zeukala.

### HUNKIGARRIA

